Lehendakaria / Presidente
**Imanol Zubizarreta Arteche**

Kidea / Vocal
**Mikel Ulazia Etxabe**

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria
**Nekane Orbegozo Zurutuza**

**Resolución 10/2023 ebazpena**
Recurso 2/2023 errekurtsoa

AGISAS - GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILEEN ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAk kontratazio arloko errekurtso berezia jarri du Esku-hartze psikosozialeko (Bideratu programa) eta gizarte-hezkuntzako esku-hartze zerbitzua (Trebatu programa) kontratatzeko baldintza agirien aurka (2022/114 espedientea). Bada, errekurtso berezi hori dela-eta, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko bileran, goian aipatutako kideak bertan daudela, erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos para la contratación del Servicio de intervención psicosocial (Programa Bideratu) y de intervención socioeducativa (programa Trebatu) (expediente 2022/114), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** Auzitegi honetako erregistro elektronikoan 2023ko urtarrilaren 25ean aurkeztutako idazkiaren bidez, AGISAS elkarteak kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen ebazpen honen idazpuruan aipatutako egintzaren aurka. Errekurtsoari 2/2023 erregistro zenbakia eman zitzaion.

**BIGARRENA.-** 2023ko urtarrilaren 26an Auzitegiak Gizarte Politiketako Departamentuari igorri zion errekurtsoa, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea eta dagokion txostena eskatu zizkion. Dokumentazio hori 2023ko otsailaren 27an aurkeztu zen Auzitegiaren erregistroan.

**HIRUGARRENA.-** SPKLren 56.3 artikulua betez, errekurtsoa helarazi zitzaien HIRUBE SOCIEDAD COOPERATIVAri eta IZAN INTERVENCIÓN SOCIAL Y

## ANTECEDENTES

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 25 de enero de 2023 AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acto citado en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 2/2023.

**SEGUNDO.-** El día 26 de enero de 2023 el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe; todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 27 de febrero de 2023.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP se dio traslado del recurso a HIRUBE SOCIEDAD COOPERATIVA e IZAN INTERVENCIÓN SOCIAL Y COMUNITARIA,

COMUNITARIAri, eta bost eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko. Epea igarota, bi lizitatzaileetako inork ez du alegaziorik aurkeztu.

concediéndoles un plazo de cinco días para formular alegaciones. Transcurrido el plazo, ninguna de las dos licitadoras ha presentado alegaciones.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**LEHENENGOA.- Xedea.**

Ehun mila eurotik gorako balio zenbatetsia duen zerbitzu-kontratu baten baldintza agirien aurka jarri da errekurtsoa. Errekurtsoa baldintza agirian aurreikusitako bi loteen aurka jarri da, eta lote bakoitzak banaka ere gainditzen du zenbateko hori.

Beraz, egintza horri errekurtso berezia jar dakioke kontratazio arloan, hala xedatzen baita SPKLren 44. artikuluaren 1.a) eta 2.a) zatietan.

**BIGARRENA.- Eskumena.**

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

**HIRUGARRENA.- Epea.**

Errekurtsoa SPKLren 50.1.b) artikuluan aurreikusitako hamabost egun baliodunneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia 2023ko urtarrilaren 3an argitaratu zela Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratatzailearen profilean (Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma barruan dagoena), eta errekurtsoa 2023ko urtarrilaren 25ean aurkeztu zela.

**LAUGARRENA.- Legitimazioa.**

Errekurtsogilea errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu SPKLk 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO.- Objeto.**

El recurso se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios cuyo valor estimado global supera los cien mil euros. El recurso se dirige contra los dos lotes previstos en el pliego, cada uno de los cuales supera también individualizadamente esa cantidad.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 44 de la LCSP.

**SEGUNDO.- Competencia.**

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**TERCERO.- Plazo.**

El recurso ha sido interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación se publicó el día 3 de enero de 2023 en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, y el recurso se interpuso el día 25 de enero de 2023.

**CUARTO.- Legitimación.**

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de

prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan. Izan ere, aurkaratzen dituen baldintza agirietan jasotako kontratuaren xedearekin zerikusia duten interesak ordezkatzen dituen elkarte bat da, eta bertako kideen interes kolektiboak defendatzen ditu.

revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

**BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa.**

2022ko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak arestian aipatutako kontratazio espedientea onartu zuen (2022/114 espedientea), bai eta administrazio klausula partikularren agiria (AKPA) eta preskripzio teknikoen agiria (PTA) ere.

Errekurtsoak preskripzio teknikoen agiria aurkaratzen du, eta, zehazkiago, VIII. puntuko aurreikuspenak. Puntu horretan honako hauek ezartzen dira: i) kontratua gauzatzeko eskatzen diren giza baliabideak; ii) prestaziorako eskatzen diren lanbide-profilek bete beharreko eginkizunak; iii) kontratuaren barruan jasotzen diren beharrezko lanbide-profiletarako behar den titulazioa; eta iv) honako hau ezartzen duen tartekia: *“Lanaldi osoa eskatzen den kasuetan, ulertzen da kasu bakoitzean zehaztutako pertsona kopurua kontratatu beharko duela lizitatzaileak, erreferentziako hitzarmenean lanaldiari buruz urte bakoitzerako markatutako baldintzetan eta oporrak estali beharrik gabe."* Era berean, zalantzan jartzen du kontratazioaren beharra justifikatzen duen txostenaren atal baten legezkotasuna, "*kontratua gauzatzeari buruzko beste gai batzuei*" buruzkoa, non lehentasunezko irizpide bat ezartzen baita kontratuari atxikitako langileen ordezkapenak emakumeekin betetzeko, bereziki egoera ahulean dauden hainbat emakume-taldetakoekin.

**QUINTO.- La actuación recurrida.**

Mediante Acuerdo de 20 de diciembre de 2022, el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación anteriormente señalado (expediente 2022/114), así como el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el de prescripciones técnicas (PCT).

El recurso impugna el PCT, y más concretamente las previsiones del punto VIII en el que se establecen: i) los medios humanos que se exigen para la ejecución del contrato; ii) las funciones a desempeñar por los diferentes perfiles profesionales exigidos para la prestación; iii) la titulación necesaria para los diferentes perfiles profesionales necesarios que se contemplan dentro del contrato y, iv) el inciso que establece que *“en los casos en que se expresa jornada completa, se entiende que el número de personas indicadas en cada caso serán las que la entidad licitadora deberá contratar, con las condiciones de jornada marcadas para cada anualidad por el convenio de referencia y sin que se deban cubrir las vacaciones.”* Asimismo, cuestiona la legalidad de un apartado del informe justificativo de la necesidad de proceder a la contratación, y referido a *“otras cuestiones relativas a la ejecución del contrato”* en el que se establece un criterio preferente para que las sustituciones del personal adscrito al contrato se cubran con mujeres, especialmente de diferentes grupos de mujeres desfavorecidas.

Agiri horien aurka, AGISASek kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen, uste duelako inolako justifikaziorik gabe eta, beraz, modu arbitrarioan, erreserba bat edo, gutxienez, diskriminazio-tratamendu bat ezartzen dela enpresek kontratua gauzatzeko erabili behar dituzten lanbide-profiletan identifikatutako unibertsitate-titulazioa duten pertsonen alde.

Frente a estos pliegos AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación al considerar que se establece, sin justificación alguna y, por tanto, de modo arbitrario, una reserva o, al menos, un tratamiento discriminatorio, en favor de las personas que ostentan una titulación universitaria que se identifica en los diferentes perfiles profesionales que las empresas deben dedicar a la ejecución del contrato.

**SEIGARRENA.- Errekurtsoaren arrazoiak.**

AGISAS elkarteak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen zorroarekin (urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak arautua) lotzen du kontratuaren objektua. Kontratua gauzatzeko behar diren giza baliabideak aipatzen ditu, eta, preskripzio teknikoen agiriaren VIII. puntuaren edukia erreproduzitu ondoren, uste du alderdi hauek ez datozela bat zuzenbidearekin:

**A)** PTAren VIII. puntua, zenbait unibertsitate-titulazio modu arbitrarioan edo neurriz kanpo eskatzen direlako, lizitazioak barne hartzen dituen bi loteen barruan egiteko Gizarteratzeko Goi mailako Teknikariek (aurrerantzean GGT) bete ditzaketen eginkizunak. Errekurtsoa oinarritzeko, kontratua gauzatzeko eskatzen diren lanbide-profilen azterketa indibidualizatua egiten da, eta haien eginkizunak alderatzen dira Gizarteratzeko Goi mailako Teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duen apirilaren 15eko 63/2014 Dekretuan jasotzen diren errealizazio profesionalekin (EP) eta errealizazio-irizpideekin (EI).

**B)** Kontratuari atxikitako langileen lanaldiaren banaketa, arbitrariotzat eta diskriminatzailetzat jotzen delako, GGTak lanaldi-banaketa horretatik kanpo geratzen baitira.

**C)** Kontratazioaren beharra justifikatzen duen txostenaren atal bat, kontratuari atxikitako langileak emakumeen bidez, bereziki egoera ahulean dauden kolektiboetako emakumeen bidez,

**SEXTO.- Los motivos del recurso.**

La asociación AGISAS conecta el objeto del contrato con la Cartera de Prestaciones y del Sistema Vasco de Servicios Sociales, regulada por Decreto 185/2015, de 6 de octubre. Alude a los medios humanos requeridos para la ejecución del contrato y tras reproducir el contenido del punto VIII del PCT considera que no se ajustan a derecho los siguientes aspectos:

**A)** El punto VIII del PCT por exigir de manera arbitraria, desproporcionada o arbitraria, diferentes titulaciones universitarias para desarrollar, dentro de los dos lotes que incluye la licitación en cuestión, funciones que podrían ser desempeñadas por Técnicos Superiores de Integración Social (en adelante TSIS). En la fundamentación del recurso se realiza un análisis individualizado de los diferentes perfiles profesionales requeridos para la ejecución del contrato, contrastando sus funciones con las realizaciones profesionales (RP) y criterios de realización (CR) que recoge el Decreto 63/2014, de 15 de abril por el que se establece el currículo correspondiente al título de Técnico Superior en Integración Social.

**B)** La distribución de jornada del personal adscrito al contrato por considerarla arbitraria y discriminatoria debido a que se excluye de dicha distribución de jornada a los TSIS.

**C)** Un apartado del informe justificativo de la necesidad de la contratación en el que se establece un criterio de sustitución del personal adscrito al contrato mediante

ordezteko irizpide bat ezartzen duena. Errekurtsogilearen ustez, horrek tratu-berdintasunaren printzipioa urratzen du, eta gizonak eta pertsona ez-binarioak diskriminatzen ditu.

Errekurtsoaren petitumak hogeita lau puntu ditu, modu sintetikoan erreproduzitzen ditugunak zortzi ataletan multzokatuta:

**1)** GGT titulua duten pertsonen kaudimen teknikoa eta profesionala aitortzea Bideratu (1. sorta) eta Trebatu (2. sorta) programetako talde profesionaletako kide izateko, bai eta PTAn honako lanpostu hauei esleitutako eginkizunak betetzeko ere:

- Zerbitzuaren zuzendaritza.
- Talde koordinatzailea.
- Psikologoa – Haurren sexu abusuko aholkularitza teknikaria (1. sorta).
- Psikologo terapeuta (1. sorta)
- Gizarte hezitzailea (1. sorta)
- Administraria
- Psikologoa (2. sorta)
- Gizarte hezitzailea (2. sorta)

**2)** Bertan behera uztea PTAko VIII. atalean ezartzen den unibertsitateko titulazioa izateko betebeharra (kasu bakoitzerako eskatutakoa), honako lanpostu hauetan:

- Zerbitzuaren zuzendaritza
- Talde koordinatzailea
- Psikologoa – Haurren sexu abusuko aholkularitza teknikaria (1. sorta)
- Psikologo terapeuta (1. sorta)
- Gizarte hezitzailea (1. sorta)
- Psikologoa (2. sorta)
- Gizarte hezitzailea (2. sorta)

**3)** PTAren VIII. puntuan jasotako lanpostuak betetzeko eskubidea kasu guztietan aitortzea Esku Hartze Sozialari buruzko Gipuzkoako Lan Hitzarmeneko (aurrerantzean, Sektoreko Hitzarmen aplikagarria) 3. lanbide-taldeko langileei.

mujeres, especialmente de mujeres de colectivos desfavorecidos, lo que considera que vulnera el principio de igualdad de trato y resulta discriminatorio hacia los hombres y personas no binarias.

El petitum del recurso incluye veinticuatro puntos que reproducimos de forma sintética agrupados en ocho apartados:

**1)** Se reconozca la solvencia técnica y profesional de las personas que estén en posesión del título de TSIS para formar parte de los equipos profesionales de los programas Bideratu (lote 1) y Trebatu (lote 2), así como para ejercer las funciones asignadas en el PCT a los puestos de:

- Dirección del Servicio.
- Coordinador/a de Equipo.
- Psicologo/a-Técnico/a de asesoramiento de abuso sexual infantil (lote 1).
- Psicologo/a-Terapeuta (lote 1)
- Educador/a Social (lote 1)
- Personal Administrativo
- Psicólogo/a (lote 2)
- Educador/a Social (lote 2)

**2)** Se anule la obligación establecida en el apartado VIII del PCT, de disponer de titulación universitaria (la exigida para cada caso) en el caso de los puestos de:

- Dirección del Servicio
- Coordinador/a de Equipo
- Psicologo/a-Técnico/a de asesoramiento de abuso sexual infantil (lote 1)
- Psicologo/a-Terapeuta (lote 1)
- Educador/a Social (lote 1)
- Psicólogo/a (lote 2)
- Educador/a Social (lote 2)

**3)** Se reconozca en todos los casos el derecho a desempeñar los puestos incluidos en el punto VIII del PCT al personal integrado en el grupo profesional 3 del Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa (en adelante, Convenio Sectorial de aplicación).

**4)** Bertan behera uztea PTAn ezarritako betebeharra, honako lanpostu hauek aplikagarri den sektoreko hitzarmeneko 1. lanbide-taldeari esleitutako eginkizunekin identifikatzekoa:

- Psikologoa – Haurren sexu abusuko aholkularitza teknikaria (1. sorta)
- Psikologo terapeuta (1. sorta)
- Psikologoa (2. sorta)

**4)** Se anule la obligación establecida en el PCT de que los siguientes puestos se identifiquen con las funciones atribuidas al Grupo profesional 1 del Convenio Sectorial de aplicación:

- Psicólogo/a-Técnico/a de asesoramiento de abuso sexual infantil (lote 1)
- Psicólogo/a-Terapeuta (lote 1)
- Psicólogo/a (lote 2)

**5)** Bertan behera uztea PTAn ezarritako betebeharra, honako lanpostu hauek aplikagarri den sektoreko hitzarmeneko 2. lanbide-taldeari esleitutako eginkizunekin identifikatzekoa:

- Gizarte hezitzailea (1. sorta)
- Gizarte hezitzailea (2. sorta)

**5)** Se anule la obligación establecida en el PCT de que los siguientes puestos se identifiquen con las funciones atribuidas al Grupo profesional 2 del Convenio Sectorial de aplicación:

- Educador/a Social (lote 1)
- Educador/a Social (lote 2)

**6)** PTAaren VIII. puntuan, *"Lanaldi osoa eskatzen den kasuetan, ulertzen da kasu bakoitzean zehaztutako pertsona kopurua kontratatu beharko duela lizitatzaileak, erreferentziako hitzarmenean lanaldiari buruz urte bakoitzerako markatutako baldintzetan eta oporrak estali beharrik gabe"* dioen paragrafotik kentzea inposiziotzat jotzen duen honako hitz-tarte hau: *"oporrak estali beharrik gabe"*.

**6)** Se anule del apartado del punto VIII del PCT que señala *"En los casos en que se expresa jornada completa, se entiende que el número de personas indicadas en cada caso serán las que la entidad licitadora deberá contratar, con las condiciones de jornada marcadas para cada anualidad por el convenio de referencia y sin que se deban cubrir las vacaciones"* el inciso que califica como imposición *"sin que se deban cubrir las vacaciones"*

**7)** PTAren VIII. puntuaren deuseztasuna deklaratzea, bi sortetan profesional desberdinen artean lanaldiak banatzea ezartzen duen zatian, tratu-berdintasunaren printzipioa urratzen duten eta GGTekiko diskriminatzaileak diren baldintza arbitrarioak direlako. Halaber, deklaratzea GGTek eskubidea dutela lanaldien banaketan parte hartzeko, gainerako profesionalen tratu berean.

**7)** Se declare la nulidad del punto VIII del PCT en la parte que establece una distribución de jornadas de trabajo horaria entre los distintos profesionales, en ambos lotes, por tratarse de condiciones arbitrarias que vulneran el principio de igualdad de trato y resultan discriminatorias con los TSIS. Se declare, asimismo, el derecho de los TSIS a formar parte de la distribución de las jornadas de trabajo horaria en igualdad de trato que el resto de profesionales.

**8)** Zerbitzuaren kontratazioa justifikatzen duen memoriatik kentzea honako hau ezartzen duen hitz-tartea: «Bajak eta ordezkapenak eta langileen kontratazio berriak emakumeekin beteko ditu enpresak, eta, bereziki, lan-merkatuko emakume behartsuekin, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden emakumeekin, edo jarduera- edo enplegagarritasun-tasa urriak dituzten kolektibo edo gutxiengoetako

**8)** Se anule de la memoria justificativa de la contratación del servicio el inciso en el que se establece que *"la empresa cubrirá las bajas y sustituciones y nuevas contrataciones de personal con mujeres, y en especial con mujeres desfavorecidas del mercado laboral, mujeres en situación o riesgo de exclusión social, o mujeres pertenecientes a colectivos o minorías con escasas tasas de actividad o*

emakumeekin», tratu-berdintasunaren printzipioa eta aukera-berdintasunaren printzipioa urratzen dituelako eta diskriminatzailea delako, gizonak edo pertsona ez-binarioak kontratatzea eragozten baitu.

*empleabilidad"* por vulnerar el principio de igualdad de trato, principio de igualdad de oportunidades y resultar discriminatorio, al impedir la contratación de personas que son hombres o personas no binarias.

**ZAZPIGARRENA.- Erakunde kontratatzailearen posizioa.**

**SÉPTIMO.- Posición de la entidad contratante.**

Erakunde kontratatzailearen posizioa, kasu honetan, Gizarte Politiketako Departamentuko Idazkaritza Teknikoak emandako txostenean islatzen da.

La posición de la entidad contratante se refleja en este caso en el informe emitido por la Secretaría Técnica del Departamento de Políticas Sociales.

Txosten horrek, errekurtsoaren oinarrietatik abiatuta, hiru puntutan taldekatzen ditu AGISASen eskaerak.

Este informe, tomando como base los fundamentos del recurso, agrupa las peticiones de AGISAS en tres puntos.

a) PTAren VIII. puntuan gizarte integrazioko titulazioa sartzea, zuzendaritza- eta koordinazio-funtzioak bete ahal izateko.

a) Inclusión en el punto VIII del PCT de la titulación de integración social para poder acceder a las funciones de dirección y de coordinación.

Bere ustez, kontratazio-organoa da, Administrazioak eskatzen dituen beharrizanak ezagututa eta premia horiek betetzeko modurik onena zein den jakinda, kontratuaren xedea parametro horien arabera taxutu behar duena, eta kontratatu beharreko prestazioaren eraketan diskrezionalitate hori ezin da lizitatzaileen borondatearen bidez ordezkatu, eta adjudikazio prozedura jakin bat lehiara gehiago ala gutxiago irekitzeak, berez, ez du esan nahi lehiaren, lizitazioetarako sarbide askearen, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak urratzen direnik, kontratuaren bidez ase beharreko beharretan edo helburuetan oinarritzen denean.

Considera que es el órgano de contratación el que, conocedor de las necesidades que demanda la Administración y conocedor también del mejor modo de satisfacerlas, debe configurar el objeto del contrato atendiendo a esos parámetros, sin que esta discrecionalidad en la conformación de la prestación a contratar pueda ser sustituida por la voluntad de los licitadores, y sin que la mayor o menor apertura a la competencia de un determinado procedimiento de adjudicación tenga que suponer, en sí misma, una infracción de los principios de competencia, libre acceso a las licitaciones e igualdad y no discriminación, cuando encuentra su fundamento en las necesidades o fines a satisfacer por el contrato.

Bere ustez, zerbitzu hori taxutzerakoan, zerbitzua ematea arautzen duen araudiaren mende dago (3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa; 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte zerbitzuei buruzkoa). Era berean, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzkoak, 42. artikuluan

Considera que, al configurar este servicio, está sometido a la normativa que regula la prestación del mismo (Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales). Asimismo, la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de Protección Integral a la Infancia y la Adolescencia frente a la violencia, en

ezartzen duenez, administrazio publikoek arreta espezializatuko gizarte-zerbitzuak eman beharko dituzte nahitaez, gizarte-hezkuntzako, psikologiako eta gizarte-laneko profesionalek osatutakoak, ahal dela.

Arau-esparru horrek, bere ustez, zerbitzuen izaera espezializatua zehazten du, eta horrek prestakuntza- eta espezializazio-maila egokia eskatzen du, kontratua behar bezala gauzatuko dela bermatzeko. Horregatik, esku-hartzea garatzen duten lanbide-profilen konfigurazioan psikologo-terapeutaren eta gizarte-hezitzailearen beharra ezarri da, horiek baitira eman beharreko zerbitzuetara egokitzen diren figura profesionalak. Hori guztia, aipatutako bi titulazioen konpetentzia profesionalen edukiaren arabera.

Definitutako lanbide-konfigurazio horretan oinarrituta, non esku-hartzea psikologoek eta gizarte-hezitzaileek egingo duten, Zerbitzuaren Zuzendaritzako eta Koordinazioko eginkizunak gara ditzaketen titulazioen eskakizuna zehaztu da, adierazitako bi eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar den konplexutasun-, autonomia-, prestakuntza-, ezagutza- eta esperientzia-maila kontuan hartuta.

Zuzendaritzaren figurak gidatu behar du profesional-taldea. Zuzendaritzari esleitutako funtzio guztiek esku-hartzeekin egin beharreko lanaren ikuskapena azpimarratzen dute, eta horri gehitzen zaio zerbitzu horrek dakarren administrazio-kudeaketa orokorraren zuzendaritza. Zuzendaritzari atxikitako eginkizunetarako lanbide-profil jakin batzuen beharra konfiguratzean, kontratazio-organoak kontuan hartu du Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikariaren tituluari (estatukoa zein autonomikoa) dagokion curriculuma erregulatzen duen araudia, eta ez da jaso organo horrek esku-hartzeetan parte hartuko duen kolektibo profesional espezifikoa zuzentzeko aintzat hartzen duen eskumenik. Horregatik, unibertsitate mailako titulazioa eskatzen da (psikologo-terapeuten eta gizarte-hezitzaileen maila bera), eta enpresen zuzendaritzako titulazioak eta gizarte-baliabideen

su artículo 42, establece que las Administraciones Públicas deberán de manera preceptiva dotar de servicios sociales de atención especializada compuestos preferentemente por profesionales de la educación social, de la psicología y del trabajo social.

Este marco normativo determina, a su juicio, el carácter especializado de los servicios, lo que condiciona y exige un nivel de formación y especialización adecuado para garantizar la buena ejecución del contrato. Por ello, en la configuración de los perfiles profesionales que desarrollan la intervención se ha establecido la necesidad de psicólogo/a-terapeuta y educador/a social, por ser las figuras profesionales que se ajustan a los servicios que se deben prestar. Todo ello de conformidad con el contenido de las competencias profesionales de las dos titulaciones relacionadas.

Sobre la base de esta definida configuración profesional, en la que la intervención se desarrollará por psicólogos y educadores sociales, se ha determinado la exigencia de las titulaciones que puedan desarrollar las funciones de Dirección del Servicio y Coordinación, dado el nivel de complejidad, autonomía, formación, conocimientos y experiencia requeridos para un eficaz desempeño de las dos funciones señaladas.

La figura de la dirección debe liderar el equipo de profesionales. Todas las funciones asignadas a la dirección inciden en la supervisión del trabajo a realizar con las intervenciones y, a ello, se añade la dirección de la gestión administrativa global que conlleva este servicio. En el momento de configurar la necesidad de unos determinados perfiles profesionales para las funciones adscritas a la dirección, el órgano de contratación ha tenido en cuenta la normativa que regula el currículo correspondiente al título de Técnico Superior en Integración Social (tanto estatal como autonómica), y no se recogen competencias que dicho órgano considera para dirigir el colectivo profesional específico que participará en las intervenciones. Por ello, se exige titulación a nivel universitario (mismo nivel que psicólogos-terapeutas y educadores sociales), dando entrada a titulaciones de dirección de empresas, y

kudeaketako eta gizarte-, hezkuntza- edo psikologia-zientzietako graduondokoak sartzen dira, baina titulazio hori haur eta nerabeen babeseko berariazko prestakuntzarekin eta eremu horretan egiaztatutako esperientziarekin indartuz. Zerbitzuaren zuzendaritzari esleitutako titulazioa zehazteko, espezializazio profesionalaren eta zerbitzu espezializatuak emateak eskatzen duen konplexutasun- eta autonomia-mailaren irizpide berari jarraitu zaio. Titulazioak aukeratzerakoan, kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko behar den prestakuntza- eta espezializazio-maila hartu da kontuan. Eskatutako baldintza teknikoek benetako premia bati erantzuten diote.

postgrados en la gestión de recursos sociales, ciencias sociales, educativas o psicológicas, pero reforzándose la citada titulación con formación específica en protección infantil y adolescente, y experiencia acreditada en dicho ámbito. La determinación de la titulación asignada a la dirección del servicio está configurada siguiendo el mismo criterio de especialización profesional, y de nivel de complejidad y autonomía que exige la prestación de los servicios especializados. En la elección de las titulaciones se ha tenido en cuenta el nivel necesario de formación y especialización adecuado para poder garantizar la buena ejecución del contrato. Las condiciones técnicas exigidas responden a una necesidad real.

Koordinatzailearen figurari dagokionez, errekurtsoari buruzko txostenak dioenez, funtzio horretan sar daitezkeen titulazioak zehazterakoan, kontratazio-organoak, bete beharreko funtzioak eta koordinazioaren xede den kolektibo profesionala aztertu ondoren, eman beharreko zerbitzuaren (zerbitzu espezializatua) konfigurazio teknikoa egiteko erabilitako irizpide berari jarraitu dio. Kontuan hartu da figura horri ez dagokiola inolako administrazio-kudeaketa orokorrik, eta aurrekoarekin alderatuta konplexutasun-maila txikiagoa duela. Eman beharreko zerbitzuaren eta kontratuan ase beharreko premien definizioan eta konfigurazioan ahalmen diskrezionala errepikatzen da, arbitrariotasunaren debekuak mugatzen duena, baita 3/2005 Legeak eta 12/2008 Legeak zerbitzu espezializatu bat eskaintzeko ezarritako betebeharra ere.

En cuanto a la figura del coordinador, el informe acerca del recurso señala que, en la determinación de las titulaciones que pueden acceder a esta función, el órgano de contratación, tras el análisis de las funciones a realizar y el colectivo profesional sobre el que ejerce la coordinación, ha seguido el mismo criterio que en la configuración técnica del servicio a prestar (servicio especializado). Se toma en cuenta que a esta figura no le corresponde ninguna gestión global de administración, y contempla un nivel inferior de complejidad con respecto al anterior. Se reitera la facultad discrecional, limitada por la interdicción de la arbitrariedad, en la definición y configuración del servicio a prestar y las necesidades a satisfacer en el contrato, y la obligación impuesta por la ley 3/2005 y ley 12/2008 para ofrecer un servicio especializado.

b) PTAren VIII. atalean psikologo-terapeutaren eta gizarte-hezitzailearen eginkizunak bete ahal izateko GGT titulazioa sartzeko eskaera.

b) Solicitud de inclusión en el apartado VIII del PCT de la titulación de TSIS para poder acceder a las funciones de psicólogo-terapeuta y educador social.

AGISASen eskaera horri erantzunez, errekurtsoari buruzko txostena otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 53. artikuluan xedatutakotik abiatzen da.

En respuesta a esta petición de AGISAS, el informe acerca del recurso parte de lo dispuesto en el artículo 53 de la Ley 3/2005, de 18 de febrero.

Artikulu horretan adingabeek bizi ditzaketen arrisku larriko edo kalteberatasuneko egoerei (familia gunetik bereiztea barne) aurre egiteko

Este artículo describe el nivel de especialización requerido para afrontar las situaciones de grave riesgo o vulnerabilidad en la que se pueden

behar den espezializazio-maila deskribatzen da.

encontrar los menores, incluida la separación de su núcleo familiar.

Era berean, lege horren 55. artikuluan ezarritakoa aipatzen du lurralde-zerbitzuak zerbitzu "espezializatu" gisa kalifikatzeko, eta horien barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzua.

Asimismo, alude a lo establecido en el artículo 55 de esa misma Ley para calificar como servicio “especializado” los servicios territoriales, y dentro de éstos, el Servicio de Protección a la Infancia y Adolescencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa

Ez du onartzen AGISASek unibertsitateko titulazioen eskakizunari buruz egindako balorazioa, eta uste du titulazio horiek lotura estua dutela gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko prozesuan garatu beharko dituzten funtzio espezifikoekin.

Rechaza la valoración de AGISAS en relación con la exigencia de las diferentes titulaciones universitarias y considera que esas titulaciones guardan estrecha relación con las funciones específicas que van a tener que desarrollar en el proceso de intervención socioeducativa y psicosocial.

Errekurtsoaren oinarri horrek eragindako lanbide-profil bakoitzari dagozkion funtzioak eta zereginak aztertzen ditu, eta ondorioztatzen du esku-hartzea behar bezala gauzatzeko behar den espezializazio mailak kasu bakoitzean eskatzen den unibertsitate prestakuntza behar duela.

Analiza las funciones y tareas que corresponden a cada uno de los perfiles profesionales afectados por este fundamento del recurso, y concluye que en todos los casos el nivel de especialización necesario para su correcto desempeño precisa de la formación universitaria requerida en cada caso.

c) Kontratatutako enpresak bajak, ordezkapenak eta kontratazio berriak lan-merkatuan egoera ahulean dauden emakumeekin bete behar dituela dioen pasartea zerbitzuaren memoriatik ezabatzeko eskaera.

c) Solicitud de que se anule de la memoria del servicio que la empresa contratada deba cubrir las bajas, sustituciones y nuevas contrataciones de personal con mujeres desfavorecidas del mercado laboral.

Gai horri dagokionez, SPKLren 1.3 artikuluan gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzeari buruz adierazitakoa gogorarazten du, eta nabarmentzen du arauzko betebehar bat dela, eta haren kokapen sistematikoa lehentasunezkoa dela.

En relación con esta cuestión, recuerda lo señalado en el artículo 1.3 de la LCSP sobre la incorporación de criterios sociales y medioambientales resaltando que se trata de una obligación normativa, cuya ubicación sistemática es preeminente.

Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aipatzen du, duela gutxi martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bidez aldatutakoa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan adjudikazio-irizpideak eta exekuzio-baldintza bereziak ezartzeko betebeharra oro har sartzeko.

Cita asimismo la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, recientemente modificada mediante Ley 1/2022, de 3 de marzo, para incluir con carácter general la obligación de establecer criterios de adjudicación y condiciones especiales de ejecución en materia de igualdad entre mujeres y hombres.

Bere ustez, botere publikoek jarduteko, dauden oztopoak kentzeko eta beren jarduera guztietan berdintasuna sustatzeko betebeharra dute. Horretarako, ezinbestekoa da kontratazio

Considera que los poderes públicos tienen el deber de actuar, remover los obstáculos existentes y promover la igualdad en todas sus actuaciones. Para ello, es imprescindible incorporar la

publikoan genero-ikuspegia txertatzea, eta, horretarako, ekintza positiboaren eta zeharkakotasunaren oinarrizko printzipioak aplikatu behar dira; printzipio horiek, martxoaren 3ko 1/2022 Legeak sartutako aldaketen ondoren, are argiago jasotzen ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak.

Azkenik, adierazi du GGTek osatzen duten kolektiboan ere egon daitezkeela adjudikazio irizpideetan deskribatzen diren egoeretako batean dauden emakumeak (lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeak...), eta horientzat ere ekintza positiboko neurriak sustatu behar direla.

**Auzitegiaren balorazioak.**

**A) Hurbilketa orokorra**

**ZORTZIGARRENA.-** Errekurtsoak planteatzen dituen gaien artean, garrantzitsuena da unibertsitate-tituluak eskatzea kontratua betetzeko eskatzen diren lanbide-profiletarako. Horregatik, interesgarria da gogora ekartzea lanbide tituludunen gaitasunei buruzko jurisprudentzia-doktrina, elkarte errekurtsogileak behin eta berriz aipatu duena (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2021eko martxoaren 23ko epaia, 482/2020 zk errekurtsoari dagokionea, zeinak, era berean, partzialki errepikatzen baitu Auzitegi Gorenaren 2015eko urriaren 19ko epaia, 1482/2013 kasazio-errekurtsoari dagokiona). Doktrina horrek, hain zuzen ere, behin eta berriz adierazi izan du kontratazio publikoaren eremuan "askatasun eta egokitasunaren" printzipioa gailentzen dela esklusibotasunaren eta eskumen-monopolioaren gainetik, eta kontratu-errekurtsoen organoen ebazpenetan ere txertatu da [besteak beste, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren (KEAAN) 319/2015 edo 1051/2021 ebazpenak; Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (KEAO) 21/2022 edo 62/2022 ebazpenak; eta Foru Auzitegi honen 9/2018, 1/2019 edo 5/2023 ebazpenak].

perspectiva de género en la contratación pública, para lo cual deben aplicarse los principios básicos de acción positiva y la transversalidad; principios que, tras las modificaciones introducidas por la Ley 1/2022, de 3 de marzo, recoge más claramente, si cabe, la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Finalmente, señala que en el colectivo que forman los TSIS también puede haber mujeres en alguna de las situaciones que se describen en los criterios de adjudicación (mujeres con dificultades de acceso al mercado laboral...) y para las que se deben promover también medidas de acción positiva.

**Apreciaciones del Tribunal.**

**A) Aproximación General**

**OCTAVO.-** Entre las diferentes cuestiones que plantea el recurso, la más importante es la exigencia de titulaciones universitarias para los diferentes perfiles profesionales requeridos para la prestación del contrato. Por ello, resulta de interés recordar la doctrina jurisprudencial relativa a las competencias de las profesiones tituladas, aludida reiteradamente por la asociación recurrente (por todas, sentencia del TSJPV de 23 de marzo de 2021, recurso nº 482/2020 que, a su vez, reproduce parcialmente lo señalado por STS de 19 de octubre de 2015, recurso de Casación 1482/2013). Esta doctrina, en efecto, viene señalando de forma reiterada la prevalencia en el ámbito de la contratación pública del principio de “libertad con idoneidad” sobre el de exclusividad y monopolio competencial, y ha sido también incorporada a resoluciones de los diferentes órganos de recursos contractuales [entre otras, Resoluciones 319/2015 o 1051/2021 del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC); Resoluciones 21/2022 o 62/2022 del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi (OARC) y; resoluciones 9/2018, 1/2019 o 5/2023 de este Tribunal Foral]

Ondorio praktikoetarako, doktrina hori aplikatzeak esan nahi du irispide-askatasunaren printzipio orokorrari eragiten dion kontratazio-arloko edozein muga legezko erreserba baten ondorio izan behar dela, edo, gutxienez, kontratazio espedientean argi eta garbi islatutako justifikazio nahikoa eta egoki baten ondorio. Horrela bakarrik eskatu ahal izango da kaudimen teknikoaren betekizun gisa titulazio espezifiko jakin batzuk dituzten pertsonak kontratuan sartzea, kontratuaren xedearekin lotura handiagoa edo txikiagoa izan dezaketen beste titulazio batzuk alde batera utzita. Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak (KEAAN), apirilaren 10eko 319/2015 ebazpenean, honela adierazi zuen inguruabar hori:

A efectos prácticos, la aplicación de esta doctrina supone que cualquier limitación en materia de contratación que afecte al principio general de libertad de acceso, debe responder a la existencia de una reserva legal o, al menos, a una justificación suficiente y adecuada que quede claramente plasmada en el expediente de contratación. Únicamente de esta forma se podrá exigir como un requisito de solvencia técnica la incorporación al contrato de personas con unas determinadas titulaciones específicas, excluyendo otras titulaciones que pueden estar más o menos relacionadas con el objeto del contrato. El TACRC, en su Resolución 319/2015, de 10 de abril, expresa esta circunstancia en los siguientes términos:

*“Es importante destacar que no se trata del reconocimiento de un derecho a la igualdad de todos los profesionales, sino de aquéllos que tienen la “capacidad técnica real para el desempeño de las respectivas funciones”, elemento éste que, a falta de previsión normativa, debe ser objeto de un análisis casuístico. En definitiva, la jurisprudencia rechaza el monopolio de competencias a favor de una profesión técnica determinada al mantener la necesidad de dejar abierta la entrada a todo título facultativo oficial que ampare un determinado nivel de conocimientos técnicos”.*

**BEDERATZIGARRENA.-** Aztergai dugun lizitazioan zentratuta, eta kontratazioa sustatu duen Departamentuaren jarrera lege-mailako arauetan ere oinarritzen bada ere, hala nola otsailaren 18ko 3/2005 Legean (Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa), abenduaren 5eko 12/2008 Legean (Gizarte Zerbitzuena), ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan (Haurren eta Nerabeen Babes Integralarena) edo otsailaren 18ko 4/2005 Legean (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa), bi sortetarako eskatzen diren lantaldeak osatzen dituzten profil profesional desberdinetarako unibertsitate-titulazio jakin batzuk eskatzea ez da lege-erreserba batean oinarritzen, baizik eta SPKLren 76. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako aukeran. Horien arabera:

**NOVENO.-** Centrada la cuestión en la licitación que nos ocupa, y aunque la postura del Departamento promotor de la contratación se apoya también en normas de rango legal, como la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de Protección Integral a la Infancia y la Adolescencia o la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, la exigencia de determinadas titulaciones universitarias para los diferentes perfiles profesionales que conforman los grupos de trabajo exigidos para ambos lotes no se funda en una reserva legal, sino en la posibilidad prevista en los apartados 2 y 3 del artículo 76 de la LCSP, según los cuales:

*“2. Kontratazio-organoek aukera izango dute lehiatzaileei edo lizitatzaileei eskatzeko, baldintza-agirietan horrela jasota utzi badute, beren kaudimena edo –hala badagokio– sailkapena egiaztatzeaz gain konpromisoa har dezatela kontratua egikaritzeko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak jartzeko.*

*“2. Los órganos de contratación podrán exigir a los candidatos o licitadores, haciéndolo constar en los pliegos, que además de acreditar su solvencia o, en su caso, clasificación, se comprometan a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato los medios personales o materiales suficientes para ello. Estos compromisos se*

*Konpromiso horiek kontratuan sartuko dira, eta baldintza agirietan edo kontratuaren agirian funtsezko obligaziotzat jo beharko dira, 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, edo zigorrak ezarri beharko dituzte, 192.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, adjudikaziodunak konpromiso horiek betetzen ez baditu ere.*
*Daukaten zailtasun teknikoa dela-eta kontratua egikaritzeko behar diren bitarteko pertsonalak edo materialak zehaztea erabakigarria den kontratuen kasuan, kontratazio-organoek aurreko paragrafoan aipatzen den konpromisoa exijituko dute.*
*3. Kontratistaren sailkapenerako kaudimen-baldintza gehigarri moduan bitarteko pertsonal edo materialak atxikitzea zentzuz, justifikatuta eta entitatearekiko eta kontratuaren izaerarekiko eta ezaugarriekiko modu proportzionalean egingo da, halako moduz non ez duen mugatuko enpresek lizitazioan parte har dezatela."*

*integrarán en el contrato, debiendo los pliegos o el documento contractual, atribuirles el carácter de obligaciones esenciales a los efectos previstos en el artículo 211, o establecer penalidades, conforme a lo señalado en el artículo 192.2 para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.*
*En el caso de contratos que atendida su complejidad técnica sea determinante la concreción de los medios personales o materiales necesarios para la ejecución del contrato, los órganos contratación exigirán el compromiso a que se refiere el párrafo anterior.*
*3. La adscripción de los medios personales o materiales como requisitos de solvencia adicionales a la clasificación del contratista deberá ser razonable, justificada y proporcional a la entidad y características del contrato, de forma que no limite la participación de las empresas en la licitación."*

Arau horrek zuzeneko lotura duten bi mezu biltzen ditu. Alde batetik, errekurtsoari buruzko txostenak adierazten duen bezala, bertan azaldutakotik ondorioztatzen da kontratazio-organoari dagokiola kontratua gauzatzeko atxiki behar diren giza baliabideen betekizunak finkatzeko ahalmena; izan ere, hori Administrazioak duen "diskrezionalitate teknikoa" izenekoaren barruan sartzen da, bere beharrak eta horiek kanpoko bitartekoen bidez betetzeko modua zehazterakoan. Bestalde, agindu berak betebehar bat ezartzen dio Administrazioari, hau da, betekizun hori orekatua izatea kontratatu nahi den prestazioarekiko, eta behar bezala justifikatuta egotea. Azken finean, diskrezionalitate tekniko hori bera definitzeko eta mugatzeko beste modu bat da, arbitrariotasunetik bereizteko.

Este precepto contiene dos mensajes que están directamente relacionados. Por un lado, tal y como señala el informe acerca del recurso, de lo expuesto en el mismo se desprende que corresponde al órgano de contratación la facultad de fijar los requisitos de los medios personales que deben adscribirse a la ejecución del contrato, ya que esa determinación entra dentro de la denominada "discrecionalidad técnica" con la que cuenta la Administración a la hora de determinar sus necesidades y la forma de satisfacerlas a través de medios externos. Por otro lado, el mismo precepto establece la obligación de la Administración de que esa exigencia resulte equilibrada respecto a la prestación que se quiere contratar y esté suficientemente justificada, lo cual, supone en último término otra forma de definir y delimitar esa misma discrecionalidad técnica, para diferenciarla de la arbitrariedad.

**HAMARGARRENA.-** Errekurtsoaren xede den kontratuari dagokionez, Auzitegi honen ustez, ezin da baztertu, oro har, esku-hartze psikosozialeko eta gizarte-hezkuntzako esku-hartzeko taldeen diseinuan, Administrazioak, eginkizunen espezializazio edo konplexutasun handiagoa

**DÉCIMO.-** Centrándonos en el contrato objeto del recurso, este Tribunal considera que no cabe descartar, con carácter general, que en el diseño de los equipos de intervención psicosocial y socioeducativa, la Administración pueda, atendiendo a una mayor especialización o

kontuan hartuta, prestakuntza jakin bat eskatzen zaien profil profesional espezifiko bat edo gehiago definitu ahal izatea, eta, aukera horren barruan, prestakuntza hori unibertsitate-titulazio jakin batean zehazteko aukera ere sartzen da. Premisa hori kontratuaren arau-esparruan oinarritzen da: 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Osorik Babestekoa; 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa; eta 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Lege-esparru horrek aukera ematen du eman beharreko zerbitzua espezializatu gisa kalifikatzeko, eta zerbitzu horiek gizarte-hezkuntzako, psikologiako eta gizarte-laneko profesionalek emateko lehentasuna aurreikusten du. Lehentasun hori ez da funtzio-erreserba legala titulazio jakin batzuen alde, eta, era berean, ez du aukerarik ematen lehentasunezko eremu horretatik kanpo uzteko AGISASek ordezkatutako profesionalak, gizarte-langiletzat eta -hezitzailetzat ere har baitaitezke zentzu zabalean. Alabaina, aukera ematen du zerbitzu-eredu bat onartzeko, zeinean, zerbitzua behar bezala emateko behar diren lanbide-profiletako bat edo batzuk betetzeko, eta haien funtzioen espezializazioa edo konplexutasuna kontuan hartuta, esku-hartzearen helburuarekin lotutako goi mailako prestakuntza eskatzen baita, unibertsitatekoa izan ala ez.

complejidad de sus funciones, definir uno o más perfiles profesionales específicos para los que se exija una formación  determinada y, dentro de esa posibilidad, también se incluye la opción de que esa formación se concrete en una determinada titulación universitaria. Esta premisa encuentra apoyo en el marco normativo en el que se integra el contrato: Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de Protección Integral a la Infancia y la Adolescencia Frente a la Violencia, junto con la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia y la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales. Este marco legal permite la calificación del servicio a prestar como especializado, y contempla la preferencia para prestar estos servicios de profesionales de la educación social, de la psicología y del trabajo social. Esta preferencia no constituye una reserva legal de funciones en favor de determinadas titulaciones, y tampoco permite excluir de ese ámbito preferencial a los profesionales representados por AGISAS, puesto que también pueden ser considerados como trabajadores y educadores sociales en sentido amplio, pero sí permite admitir un modelo de servicio en el que para desempeñar alguno o algunos de los perfiles profesionales necesarios para su correcta prestación se exija, atendiendo a la diferente especialización o complejidad de sus funciones, una formación superior, sea o no de carácter universitaria, relacionada con el objetivo de la intervención.

Aukera hori naturaltasunez onartzen du otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretuak, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean sartzen diren lanbide kualifikazio jakin batzuk ezartzen dituenak, bai eta horiei dagozkien prestakuntza-moduluak ere, Lanbide Heziketako Moduluen Katalogoan sartzen direnak. Errege Dekretu horretan sartzen diren lanbide kualifikazioen artean, "Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunen hezkuntza" (SSC090_3) deritzona dago, curriculuma arautzen duen Estatuko eta autonomia erkidegoko araudiak GGT titulua lortzen duten pertsonei aitortzen diena. Bada, Errege Dekretu horrek lanbide kualifikazio hori deskribatzen duenean, berariaz adierazten du "bere lana gizarte-arretako diziplinarteko taldeetan sartuko dela, goi mailako profesionalekin batera".

Esta posibilidad se admite con naturalidad en el Real Decreto 295/2004, de 20 de febrero, por el que se establecen determinadas cualificaciones profesionales que se incluyen en el Catálogo nacional de cualificaciones profesionales, así como sus correspondientes módulos formativos que se incorporan al Catálogo modular de formación profesional. Entre las diferentes cualificaciones profesionales que se incluyen en este Real Decreto, se encuentra la identificada como "*Educación de habilidades de autonomía personal y social*" (SSC090_3), que la normativa -estatal y autonómica- que regula su currículo reconoce a las personas que obtienen el título de TSIS. Pues bien, cuando este Real Decreto describe la citada cualificación profesional señala expresamente que *"su trabajo se integrará en*

*equipos interdisciplinares de atención social, junto a profesionales de nivel superior".*

Aukera hori bera ondorioztatzen da esku-hartze sozialaren eremuan esku hartzen duten gizarte-eragileek –enpresak eta langileak– beren jardunari buruz duten ikuskeratik. Horrela bakarrik azaldu daiteke sektoreari aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan sartzen den lanbide-sailkapena; kasu honetan, 2019-2022 urteetarako Esku-Hartze Sozialari buruzko Gipuzkoako III. Lan Hitzarmena (2021eko uztailaren 15eko GAO, 133. zk.). 29. artikuluan, langileak bost lanbide-taldetan kokatzea ezartzen da, *"besteak beste, honako faktore hauen baterako haztapenaren bitartez: lanpostu bakoitza eraginkortasunez betetzeko behar den konplexutasuna, autonomia, prestakuntza, ezagupenak eta esperientzia".*

Esa misma posibilidad se desprende de la concepción que los propios agentes sociales –empresas y trabajadores- que intervienen en el campo de la intervención social tienen sobre su actuación. Sólo de esa forma se explica la clasificación profesional que se incorpora en el Convenio Colectivo aplicable al sector; en este caso, el III Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa para los años 2019-2022 (BOG nº 133 de 15 de julio de 2021). En su artículo 29 se establece su encuadramiento en cinco Grupos Profesionales, *"a través de la conjunta ponderación, entre otros, de los siguientes factores: complejidad, autonomía, formación, conocimientos y experiencia requeridos para un eficaz desempeño de cada puesto de trabajo".*

Diziplina anitzeko lantalde baten planteamendua, eginkizun desberdinak, espezializatuak eta osagarriak dituena, kontratuaren esparruarekin bat dator, eta, beraz, komenigarria ez ezik, beharrezkoa ere bada.

El planteamiento de un equipo multidisciplinar, con funciones diferentes, especializadas y complementarias resulta algo consustancial al ámbito del contrato en cuestión, por lo que no resulta sólo algo conveniente, sino incluso necesario.

Hala ere, aztertzen ari garenaren moduko kontratu baten baldintza administratiboen edo baldintza teknikoen agirietan gai hori sartzerakoan, aukera horrek, lehenik eta behin, premia horren isla argia eskatzen du, kontratuan aurreikusitako eta exijitutako lanbide-profil bakoitzari esleitzen zaizkion eginkizunak ezartzerakoan. Hau da, ez da nahikoa titulazio jakin bat duen pertsona bat lanbide-profil jakin baterako eskatzea; aitzitik, profil horren funtzioek aldez aurretik zehaztuta egon behar dute, eta, beraz, titulazioaren eskakizuna lanbide-profil horri eskatzen zaizkion funtzioen ondorio gisa sortu behar da. Bigarrenik, beharrezkoa da berariazko titulazioen eskakizuna sendoa izatea, hau da, koherentzia mantendu behar da funtzio horiek betetzeko behar den espezializazio-mailaren eta eskatzen den titulazioaren artean; izan ere, bestela, titulazioa eskatzea lehia askea desitxuratzen duen elementu

Ahora bien, a la hora de introducir esta cuestión en los pliegos administrativos o en las condiciones técnicas de un contrato como el que nos ocupa, esta posibilidad requiere, en primer lugar, un claro reflejo de esa necesidad a la hora de establecer las diferentes funciones que se atribuyan a cada uno de los perfiles profesionales previstos y exigidos en el contrato. Es decir, no basta con establecer la exigencia de una persona con determinada titulación para un perfil profesional determinado, sino que las funciones de ese perfil deben estar previamente determinadas, de manera que la exigencia de titulación debe surgir como una consecuencia derivada de las funciones exigidas a ese perfil profesional. En segundo lugar, requiere también que la exigencia de titulaciones específicas resulte consistente, esto es, debe mantener una coherencia entre el nivel de especialización necesario y la titulación exigida

bat da, justifikaziorik gabea.

para el desempeño de esas funciones puesto que, en caso contrario, la exigencia de titulación se convierte en un elemento distorsionador de la libre concurrencia carente de justificación.

Aldez aurreko gogoeta horiek azalduta, Auzitegiak azter ditzake PTAk kasu honetan lanbide-profil bakoitzerako eskatzen dituen titulazio-eskakizunak.

Expuestas esas consideraciones previas el Tribunal ya puede entrar a analizar las exigencias de titulación que el PCT exige en este caso para cada uno de los perfiles profesionales.

**B) PTAn aurreikusitako lanbide-profilei eskatzen zaien titulazioaren azterketa.**

**B) Análisis de la titulación exigida a los perfiles profesionales previstos en el PCT.**

**HAMAIKAGARRENA.-** PTAk betekizun gisa ezartzen du taldeak lanbide-profil desberdinak izatea, funtzio bereiziekin. Beraz, profil horietako bakoitza aztertu behar da aipatutako egokitasun-premia horren ikuspegitik.

**UNDÉCIMO.-** El PCT contempla como requisito que el equipo cuente con diferentes perfiles profesionales con funciones diferenciadas. Es preciso, por tanto, analizar cada uno de esos perfiles desde la perspectiva de la señalada necesidad de idoneidad.

**1) Zerbitzuaren zuzendaritza: 1. eta 2. sortak.**

**1) Dirección del Servicio Lotes 1 y 2.**

Lizitazioan sartzen diren bi sortetarako, PTAk profil horretarako eskatzen du goi mailako titulazioa izatea enpresen administrazio eta zuzendaritzaren arloan, edo graduondokoa gizarte-baliabideen, gizarte-zientzien, hezkuntza-zientzien edo psikologikoen kudeaketan, eta prestakuntza espezifikoa izatea haurren eta nerabeen babesean, bai eta esperientzia egiaztatua ere eremu horretan.

Para los dos lotes que incluye la licitación, el PCT exige para este perfil estar en posesión de titulación superior en el área de administración y dirección de empresas, o postgrado en la gestión de recursos sociales, ciencias sociales, educativas o psicológicas, y contar con formación específica en protección infantil y adolescente, así como experiencia acreditada en dicho ámbito.

PTAk profil horri esleitzen dio profesionalen taldearen lidergoa, *"eta horrek konpromiso handia eskatzen du artatutako pertsonen eskubideak bermatzeko, arreta kalitatez emateko eta kalitate hori etengabe hobetzeko, adingabeen eta haien familien premiak eta igurikimenak asetzeko, eta beste interes talde batzuk, hala nola taldeko profesionalak, gogobetetzeko"*.

El PCT atribuye a este perfil el liderazgo el equipo de profesionales, "*lo que implica un gran compromiso con la garantía de los derechos de las personas atendidas, con la calidad de la atención y su mejora continua, con la satisfacción de las necesidades y expectativas de personas menores de edad y sus familias, así como con la satisfacción de otros grupos de interés, entre ellos, los y las profesionales del equipo"*.

PTAk honako eginkizun hauek esleitzen dizkio kontratuaren barruan:

- *"Kontratuan jasotako betebeharrak betetzen direla bermatzea.*
- *Zerbitzuaren koordinazio partekatua sustatzea.*

El mismo PCT le atribuye las siguientes funciones dentro del contrato:

- *"Garantizar el cumplimiento de las obligaciones adquiridas en el contrato.*
- *Impulsar la coordinación compartida del Servicio.*

- *Zerbitzuaren kalitateari eta etengabeko hobekuntzari buruzko kudeaketa planen garapena koordinatzea, sustatzea, ebaluatzea eta gainbegiratzea.*
- *Zerbitzuaren kudeaketa administratiboa, ekonomikoa, eta langileena egitea, profesionalen erregistro eguneratua eta haien zereginen banaketa jasota.*
- *Kontratatutako zerbitzua eskaintzeko beharrezkotzat jotzen diren lan agindu eta jarraibideak ematea, indarrean dagoen legedia eta Gizarte Politiketako Departamentuak emandako jarraibideak betez.*
- *Laneko proposamen, tresna eta euskarri berrien ezarpena gainbegiratzea.*
- *Zerbitzuko talde profesionalen prestakuntza bultzatzea eta koordinatzea.*
- *Zerbitzuaren ordezkari izatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta erakunde publiko eta pribatuen aurrean.*
- *Erabiltzaileek edo kanpoko edozein eragile edo entitatek edo erakundeek egindako kexei eta erreklamazioei ematen zaizkien erantzunak gainbegiratzea.*
- *Adingabeen eta haien familien eskubideak betetzen direla bermatzea, haien eskaerak bideratuz edo izapidetuz.*
- *Adingabeak eta haien familiak hobeto artatzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduerak proposatzea Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuari.*
- *Zerbitzu horren urteko memoria egitea eta Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuari aurkeztea.*
- *Datuak babesteko arauak betetzen direla bermatzea.*
- *Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatzen dizkion bilera guztietara joatea."*

Lanbide-profil horretarako, goi mailako unibertsitate-tituluaz edo zenbait gaitako graduondokoaz gain, haurrak eta nerabeak

- *Coordinar, impulsar, evaluar y supervisar el desarrollo de los Planes de Gestión relativos a la calidad y mejora continua del Servicio.*
- *Realizar la gestión administrativa, económica y de personal del Servicio, manteniendo actualizado un registro de las personas profesionales y de la distribución de sus tareas.*
- *Impartir las órdenes e instrucciones de trabajo que sean necesarias en relación con la prestación del servicio contratado velando por el cumplimiento de la normativa vigente, las instrucciones y directrices emanadas desde el Departamento de Políticas Sociales*
- *Supervisar la aplicación de nuevas propuestas, herramientas y soportes.*
- *Propiciar y coordinar la formación de los equipos profesionales del Servicio.*
- *Representar al servicio ante la DFG y ante organismos públicos y privados.*
- *Supervisar las respuestas a las quejas y reclamaciones de las personas usuarias, así como de cualquier agente o entidad externa o de carácter institucional.*
- *Garantizar el efectivo ejercicio de los derechos de que son titulares las personas menores de edad y sus familias, atendiendo o tramitando sus peticiones.*
- *Proponer al Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia cuantas acciones de mejora redunden en una mejor atención a las personas atendidas y a sus familias.*
- *Elaborar y presentar al Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia la Memoria anual del propio servicio.*
- *Garantizar el cumplimiento de las normas de protección de datos.*
- *Asistir a cuantas reuniones se le soliciten por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa."*

Para este perfil profesional se exige, además de la titulación universitaria superior o un postgrado en determinadas materias, que cuente con formación

babesteko berariazko prestakuntza eta arlo horretan egiaztatutako esperientzia izatea eskatzen da. Deskribapenean, zerbitzu hori emango duten profesionalak zuzendu eta antolatuko dituen eta departamentu kontratatzailearen aurrean solaskide gisa jardungo duen pertsona bat egongo dela jasotzen da. Lanbide-profil hori ez dago, stricto sensu behintzat, zerbitzuaren prestazio materialera bideratuta, haren kudeaketa eta administrazioa antolatzera baizik.

Administrazioarekin kontratatu nahi duten enpresek kontratuaren AKPAn eskatzen diren kaudimen teknikoko baldintzak bete behar dituzte (ezaugarrien taulako 14. puntua), eta horrekin bermatzen da –edo hori da, behintzat, eskakizunaren helburuetako bat– kontratua gauzatzeko antolaketa eta barne egitura nahikoak eta egokiak izatea. Ez da inolako eragozpenik ikusten Administrazioak zerbitzuaren zuzendaritzarako aurreikusitako funtzioak betetzen dituen figura bat egon dadin eskatzeko, baina enpresaren kaudimena egiaztatu ondoren –bereziki teknikoa edo profesionala–, enpresari dagokio bere barne-egitura propioa ezartzea, bere antolamendu-gaitasunaren barruan. AGISASek eskatutakoa kontuan hartuta, ezin da baztertu eskatutakoez bestelako titulazioa, GGT prestakuntza barne, duen pertsona batek, Espainiako Konstituzioaren 38. artikuluan aurreikusitako enpresa-askatasunaren esparruan, zuzendaritza lanak egin ahal izatea, PTAk Zerbitzuaren Zuzendaritzarako aurreikusten dituenak bezalakoak. Hain zuzen ere, apirilaren 15eko 63/2014 Dekretuak (GGT tituluari dagokion curriculuma ezartzen duenak) 3. artikuluan lanbide-profila deskribatzen du, eta 2.v) apartatuan honako konpetentzia hau jasotzen du *"enpresa txiki bat sortu eta abiarazteko oinarrizko kudeaketa egitea, eta dagokion lanbide-jardueran ekimena izatea erantzukizun sozialez jokatuta"*, eta hori bat dator lanbide-profil horretarako eskatzen denarekin.

Ez da onargarria parekotzat jotzea enpresen zuzendaritzako eta administrazioko goi mailako titulazioa, edo gizarte-baliabideen, gizarte-zientzien, hezkuntza-zientzien edo psikologikoen kudeaketako graduondoko bat, enpresa baten barruan egingarriak eta legitimoak diren beste

específica en protección infantil y adolescente, así como experiencia acreditada en dicho ámbito. La descripción contempla la existencia de una persona que dirija y organice a las personas profesionales que van a prestar el Servicio en cuestión, y actúe como interlocutor ante el Departamento contratante. Este perfil profesional no está orientado, al menos *stricto sensu,* a la prestación material del servicio, sino a la organización de su gestión y administración.

Las empresas que quieren contratar con la Administración deben contar con los requisitos de solvencia técnica exigidos en el PCAP del contrato (punto 14 del cuadro de características), con lo que se garantiza –o al menos esa es una de los objetivos de su exigencia- que cuenten con una organización y estructura interna suficientes y adecuadas para afrontar la ejecución del contrato. No se aprecia obstáculo alguno para que la Administración requiera la existencia de una figura que cumpla con las funciones previstas para la Dirección del Servicio, pero una vez acreditada la solvencia de la empresa –especialmente la técnica o profesional-, corresponde a la empresa establecer su propia estructura interna dentro de su capacidad organizativa. Atendiendo a lo reclamado por AGISAS, no cabe descartar que una persona con una titulación diferente a las exigidas, incluida la formación de TSIS pueda, en el marco de la libertad de empresa contemplada en el artículo 38 CE, desempeñar labores de dirección como las que el PCT contempla para la Dirección del Servicio. De hecho, el perfil profesional que describe el artículo 3 del Decreto 63/2014, 4, de 15 de abril, por el que se establece el currículo correspondiente al título de TSIS, incluye en su apartado 2.v) la competencia para *"realizar la gestión básica para la creación y funcionamiento de una pequeña empresa y tener iniciativa en su actividad profesional con sentido de la responsabilidad social",* lo cual encaja con lo exigido para este perfil profesional.

No resulta consistente la equiparación entre la titulación superior en dirección y administración de empresas, o la obtención de un postgrado en la gestión de recursos sociales, ciencias sociales, educativas o psicológicas, excluyendo otras posibles alternativas igualmente factibles y

aukera batzuk baztertuta.

Era berean, ezin da aipatu dagoeneko deskribatutako lege-esparrua, kontratuaren xede den zerbitzua barne hartzen duena. Esparru hori esku hartzeko taldeei soilik dagokie, eta lehentasuna ematen die gizarte-hezkuntzako, psikologiako eta gizarte-laneko profesionalei. Hortik ezin da ondorioztatu talde horiek, enpresaren eremuaren barruan, eta antolamenduari soilik dagokionez, berariazko unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonek zuzendu behar dituztenik.

Berariazko unibertsitate-titulazio bat sartzeko, ez da aski Administrazioak lanbide-profil horretarako jasotako edo aurreikusitako aukera arrazoizkoa izatea; aitzitik, berdintasunaren eta lehia askearen printzipioei eragiten dien gaia izanik, aukera hori bakarrik eskatu ahal izango da baldin eta kontratua behar bezala gauzatzeko bete beharreko eginkizunengatik beharrezkoa edo erabakigarria bada. Auzitegi honek ez du behar hori ikusten Zerbitzuaren Zuzendaritzari eskatzen zaion profilari dagokionez.

Beraz, baietsi egin behar dugu errekurtsoa, PTAren VIII. puntuan Zerbitzuaren Zuzendaritza gisa aurreikusitako profila betetzeko, 1. zein 2. sortan, enpresen zuzendaritzako eta administrazioko goi mailako titulazioa, edo gizarte-baliabideen, gizarte-zientzien, hezkuntza-zientzien edo psikologikoen kudeaketako graduondoko titulazioa eskatzeari dagokionez.

**2) Taldeko koordinatzailea: 1. eta 2. sortak**

Bi sortetan ere, eginkizun horiek bete behar dituen pertsonaren profil profesionalerako, PTAk honako hau eskatzen du *"gizarte zientzien, hezkuntza zientzien edo zientzia psikologikoen arloko unibertsitate titulua izan beharko dute, eta haurren eta nerabeen babesean prestakuntza espezifikoa eta arlo horretan esperientzia*

legítimas dentro de una empresa.

Tampoco puede aludirse al marco legal ya descrito y en el que se enmarca el servicio objeto del contrato. Ese marco está referido exclusivamente a los equipos de intervención, y establece una preferencia para los profesionales de la educación social, de la psicología y del trabajo social. No puede extraerse del mismo la obligación de que esos equipos, dentro del ámbito de su empresa, tengan que estar dirigidos, desde una perspectiva exclusivamente organizativa, por personas con estudios superiores universitarios específicos.

Para introducir una titulación universitaria específica, no basta con que la opción contemplada o prevista por la Administración para este perfil profesional resulte razonable, sino que, tratándose de una cuestión que afecta a los principios de igualdad y libre concurrencia, esa opción puede ser exigida únicamente cuando resulte necesaria o determinante por las funciones a desempeñar para la correcta prestación del contrato; necesidad que este Tribunal no aprecia en lo que se refiere al perfil exigido para la Dirección del Servicio.

Por tanto, debemos estimar el recurso en cuanto a la exigencia de titulación superior en el área de administración y dirección de empresas, o postgrado en la gestión de recursos sociales, ciencias sociales, educativas o psicológicas para el desempeño del perfil previsto en el punto VIII del PCT como Dirección del Servicio tanto en el lote 1 como en el lote 2.

**2) Coordinador/a de equipo. Lotes 1 y 2.**

También en ambos lotes, para el perfil profesional de la persona que debe desempeñar sus funciones, el PCT exige estar en posesión de "*titulación universitaria en el área de las ciencias sociales, educativas o psicológicas, y contarán con formación específica en protección infantil y adolescente, así como experiencia acreditada en*

*egiaztatua izan beharko dute".*

Hauek dira PTAren VIII. puntuan esleitzen zaizkion eginkizunak:

- *"Taldeen zuzendaritza teknikoa bere gain hartzea.*
- *Jarduketen plangintzaz eta ebaluazioaz arduratzea.*
- *Esku hartzeak eta proposamenak egiteko irizpide teknikoak definitzea.*
- *Talde lana diziplinarteko moduan sustatzea.*
- *Taldeko profesionalei laguntza ematea eta gainbegiratzea.*
- *Profesionalak beren lanarekiko motibatzea, eta elkarren arteko harremanak bultzatzea, parte hartze eta inplikazio aktiboagoa izan dezaten.*
- *Profesionalen arteko koordinazio bideak ezartzea.*
- *Beste zerbitzu eta profesional batzuekiko eta inguruneko beste erakunde batzuekiko koordinazioa bultzatzea.*
- *Taldeko profesionalek prestakuntzaren aldetik eguneratuta egoteko dituzten premiak detektatzea, haurren babesaren arloa hobeto ezagutu eta esku hartze hobea egin dezaten, bereziki gizarte eta hezkuntza arloko edo esku hartze psikosozialeko programei dagokienez.*
- *Egindako jardueren erregistro eguneratua izatea (kasu kopurua, bilerak, bisitak, elkarrizketak, txostenak, protokolo berriak, ikastaroak...)*
- *Adingabeak eta haien familiak hobeto artatzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduerak proposatzea Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuari.*
- *Adingabeei eta haien familiei banatutako gogobetetasun galdetegiak aztertzea, interpretatzea, ustiatzea eta atzera itzultzea.*
- *Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatzen dizkion bilera guztietara joatea.*"

Lanbide-profil horiei esleitutako eginkizunek

*dicho ámbito".*

Las funciones que se le atribuyen en el punto VIII del PCT son las siguientes:

- *"Asumir la dirección técnica de los equipos.*
- *Responsabilizarse de la planificación y evaluación de las actuaciones.*
- *Definir criterios técnicos para realizar intervenciones y propuestas.*
- *Promover el trabajo en equipo de forma interdisciplinaria.*
- *Proporcionar apoyo y supervisión a las personas profesionales del Equipo.*
- *Promover la motivación de los equipos hacia su trabajo, estableciendo relaciones interpersonales, con el fin de conseguir una implicación más activa de estos.*
- *Establecer canales de coordinación interprofesional.*
- *Impulsar la coordinación con otros servicios y profesionales, así como con otras entidades del entorno.*
- *Detectar necesidades de actualización formativa de las personas profesionales del Equipo parar mejorar su comprensión e intervención en el ámbito de la protección infantil y, más en concreto, en los programas de intervención socioeducativa y psicosocial.*
- *Mantener actualizado un registro de las actividades realizadas (nº de casos, reuniones, visitas, entrevistas, informes, nuevos protocolos, cursos...).*
- *Proponer al Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia cuantas acciones de mejora redunden en una mejor atención a las personas atendidas y a sus familias.*
- *Análisis, interpretación, explotación y devolución de los datos de los cuestionarios de satisfacción administrados a las personas menores de edad y a sus familias.*
- *Asistir a cuantas reuniones se le soliciten por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa"*

Las funciones atribuidas a estos perfiles

barne hartzen dituzte kontratuaren xede den prestazioaren garapen teknikora berariaz bideratutako alderdiak, hau da, esku-hartze psikosozialera edo gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzera bideratutakoak. Bere gain hartu behar ditu, besteak beste, taldeen zuzendaritza teknikoa, esku-hartzeak eta proposamenak egiteko irizpide teknikoak zehaztea, edo taldea osatzen duten profesionalei laguntza eta ikuskapena ematea. Ekintza horiek prestakuntza espezializatuko lanbide-profil bat eskatzen dute. Horrek aukera ematen du Zerbitzuaren Zuzendaritzarenaz bestelako azterketa bat egiteko, eta, gure azterketaren hasieran egindako gogoeta orokorrei erreparatzen badiegu, egoera horrek justifikatzen du titulazio espezifiko eta espezializatuaren eskakizun hori.

PTAk, kasu honetan, unibertsitate-titulua eskatzen du gizarte-zientzien arloan, baina gizarte-zientzien eremu zabal horren barruan, hezkuntza edo psikologia arloetako titulazioetara mugatzen du eskakizun hori.

Esleitutako eginkizunak ikusita, auzitegi honek uste du arrazoizko eskakizun bat dela eta sendoa, lehen adierazitako moduan. Eskakizun hori kontratuaren xede den zerbitzua ematearekin zuzenean lotutako bi eremu espezifikotara mugatzen du, hala nola hezkuntzara eta psikologiara. Lanbide profil horri dagokion eskakizunak bat egiten du zerbitzua barne hartzen duen lege-esparruarekin, eta, bakarka aztertuta, ez du eragozten taldean beste profesional batzuk sartzea, AGISASek ordezkatzen dituen tituludunak barne.

Errekurtsoa aurkeztu duen elkarteak Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren zenbait ebazpen aipatu ditu, ordezkatzen dituen tituludunen jarduera-eremuko titulazio-eskakizuna aztertzeko. Ebazpen horietako bitan (196/2021 Ebazpena, abenduaren 15ekoa, eta 202/2021 Ebazpena, abenduaren 17koa), abiapuntutzat hartuta kontratuaren prestazioen deskribapenaren eta GGT titulua lortzen duten pertsonei aitortutako lanbide-kualifikazioaren edukiaren arteko

profesionales incluyen aspectos dirigidos específicamente al desarrollo técnico de la prestación objeto del contrato, esto es, a la intervención psicosocial o socioeducativa. Debe asumir, entre otras funciones, la dirección técnica de los equipos, la definición de criterios técnicos para realizar intervenciones y propuestas, o proporcionar apoyo y supervisión a las personas profesionales que forman parte del equipo; acciones que requieren de un perfil profesional con formación especializada. Esto permite un análisis diferente al de la Dirección del Servicio y, si atendemos a las consideraciones generales realizadas al inicio de nuestro análisis, esta situación justifica esa exigencia de titulación específica y especializada.

El PCT exige en este caso una titulación universitaria en el área de las ciencias sociales, pero dentro de ese amplio campo de las ciencias sociales, circunscribe esa exigencia a las titulaciones en las áreas educativa o psicológica.

Vistas las funciones encomendadas, este Tribunal entiende que se trata de una exigencia razonable y consistente, en los términos anteriormente expuestos. Circunscribe esa exigencia a dos ámbitos específicos y directamente relacionados con la prestación del servicio objeto del contrato, como son la educación y la psicología. La exigencia en cuanto a este perfil profesional tiene encaje en el marco legal en el que se integra el servicio y, analizado aisladamente, no impide que dentro del equipo se integren otros profesionales, incluidos los titulados a los que representa AGISAS.

La asociación recurrente cita varias Resoluciones del OARC en las que se ha analizado la exigencia de titulación en el campo de actuación de los titulados a los que representa. En dos de esas Resoluciones (Resolución 196/2021, de 15 de diciembre y 202/2021, de 17 de diciembre), partiendo de la similitud o incluso amplia coincidencia entre la descripción de las prestaciones del contrato y el contenido de la cualificación profesional reconocida a las

antzekotasuna edo are bat-etortze zabala –horretarako, kontuan hartu behar dira 1074/2012 Errege Dekretua, uztailaren 13koa, GGT titulua ezarri eta haren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituena, 63/2014 Dekretua, apirilaren 15ekoa, eta aipatutako 295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa–, aipatutako organoak kontraesan hori bera azpimarratzen du hizpide dugunaren antzeko kontratuetan unibertsitate-tituluaren eskakizuna baliogabetzeko, eta baztertu egiten du gizarte-zientzien arlo zabaleko edozein titulaziok GGT titulazioak baino (AGISASek ordezkatzen dituen tituludunetara mugatzeagatik) lotura kualitatibo eta kuantitatibo handiagoa izatea kontratuaren xede orokorrarekin.

personas que obtiene el título de TSIS – para lo que se ha de tener en cuenta el Real Decreto 1074/2012, de 13 de julio, por el que se establece el título de TSIS y se fijan sus enseñanzas mínimas, en el Decreto 63/2014, de 15 de abril, ya mencionado, así como el también mencionado Real Decreto 295/2004, de 20 de febrero – el señalado órgano resalta esa misma contradicción para anular la exigencia de titulación universitaria en contratos similares al que nos ocupa, rechazando que cualquier titulación del amplio campo de las ciencias sociales tenga más conexión cualitativa y cuantitativa con la globalidad del objeto contractual que, por ceñirnos a las personas tituladas a las que representa AGISAS, la titulación de TSIS.

Auzitegi hau bat dator ebazpen horiekin, berretsi egiten baitute beharrezkoa dela eskatutako sendotasuna izatea titulazio akademiko espezifikoak eskatzeko garaian, baina uste du horietatik ez dela nahitaez ondorioztatu behar GGT titulua duen pertsona batek kontratu honen xede diren zerbitzuetan bete behar diren eginkizun guztiak bete ditzakeenik. PTAk zerbitzua diziplina anitzeko talde baten bidez ematea aurreikusten du. Talde horretan, gizarte-hezitzaileekin batera, gai sentikorretan, hala nola haurren sexu-abusuan, aholku eman behar duten psikologoak daude, funtzio terapeutikoak eta balizko patologiak hautemateko funtzioak dituztenak, edo prozedura judizialetan lekukotza emateko betebeharra dutenak. Arrazoizkoa da pentsatzea arestian aipatutako eginkizunek –zuzendaritza teknikoa, taldearentzako irizpide teknikoen definizioa eta profesionalentzako laguntza– ere gaitasun oso espezializatuak behar dituztela, eta gaitasun horiek PTAn identifikatuta daude, unibertsitateko goi-mailako prestakuntzaren esparruan kontratuaren xedearekin lotura estua duten prestakuntza-arlo espezifikoak adieraziz, hala nola psikologia eta hezkuntza, eta hori behar bezala justifikatutzat jotzen da kontratu honetarako.

Este Tribunal comparte dichas resoluciones en cuanto que confirman la necesidad de la reclamada consistencia a la hora de exigir titulaciones académicas específicas, pero entiende que de ellas no debe extraerse necesariamente que una persona con el título de TSIS, puede efectuar todas las funciones que precisan realizar en los servicios objeto de este contrato. El PCT contempla la prestación del servicio mediante un equipo multidisciplinar en el que, junto con educadores sociales, se integran psicólogos que deben asesorar en materias sensibles como el abuso sexual infantil, directamente con funciones terapéuticas, de detección de posibles patologías, o con la obligación de testificar en procedimientos judiciales. Es razonable pensar que las funciones anteriormente señaladas -dirección técnica, definición de criterios técnicos para el equipo y apoyo a los profesionales- requieren también de competencias altamente especializadas, y esas competencias están identificadas en el PCT señalando, dentro del ámbito de la formación superior universitaria, áreas de formación específicas estrechamente relacionadas con el objeto del contrato como son la psicología y la educación, lo cual se considera debidamente justificado para este contrato.

AGISASen ustez, ordezkatzen dituen tituludunek ezin hobeto bete ditzakete PTAk taldearen koordinatzailearentzat jasotzen dituen eginkizunak, baina lanbide-profil horretan aukera hori onartzeak esan nahi du parekatu egiten dela

AGISAS considera que los titulados a los que representa pueden desarrollar perfectamente las funciones que contempla el PCT para la persona coordinadora del equipo, pero admitir esa posibilidad en este perfil profesional supone

hezkuntza eta psikologia bezalako arlo espezializatuetako prestakuntza-gaikuntza, eta gaitasuna aitortzen zaiela autonomia osoz jarduteko bereziki sentikorrak diren gaietan, hala nola haurren edo nerabeen abusuetan edo tratu txarretan. Alabaina, parekatze horrek ez du gutxieneko arrazoizkotasun-judizio bat gainditzen.

Beraz, ezetsi egin behar dugu errekurtsoa, PTAren VIII. puntuan zerbitzuaren koordinatzaile gisa aurreikusitako profila betetzeko, 1. zein 2. sortan, gizarte-, hezkuntza- edo psikologia-zientzien arloko goi-mailako titulazioa eskatzeari dagokionez,

**3) Psikologoa – Haurren sexu abusuko aholkularitza teknikaria (1. sorta).**

Lanbide-profil honen kasuan, errekurtsoak jasotzen duenez, PTAren VIII. puntuan xedatutakoak ez du legezkotasuna betetzen, izan ere, i) psikologiako unibertsitate-titulua izatea eskatzen du, ii) bete beharreko eginkizunetarako erreferentziatzat hartzen du aplikatzekoa den lan hitzarmenean zehaztutako lan-profila eta, zehazkiago, lanbide-sailkapeneko 1. taldeari esleitzen zaizkion eginkizunak, eta, iii) baztertu egiten du profil horren eginkizunak GGT batek garatu ahal izateko aukera.

Lanbide-profil horretarako, PTAk honako eginkizun hauek aurreikusten ditu:

- *“Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuko profesionalei aholkuak ematea, artatutako haur eta nerabeen artean sexu abusuko kasuak gertatzen direnean edo agerian jartzen direnean egin beharreko jarduerei buruz.*
- *Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuko profesionalei aholkuak ematea, haurren sexu abusuaren jakinarazpenen aurrean kasuaren orientazioari eta egin beharreko jarduerei buruz*

equiparar la habilitación formativa en áreas especializadas como la educación y la psicología, y reconocerles para actuar con plena autonomía en materias especialmente sensibles como son el abuso o maltrato infantil, o de niños, niñas y adolescentes; equiparación que no supera un mínimo juicio de razonabilidad.

Por tanto, debemos desestimar el recurso en cuanto a la exigencia de titulación superior en el área de las ciencias sociales, educativas o psicológicas, para el desempeño del perfil previsto en el punto VIII del PCT como Coordinador/a del Servicio tanto en el lote 1 como en el lote 2.

**3) Psicólogo/a – Técnico/a de asesoramiento de abuso sexual infantil (Lote 1).**

En el caso de este perfil profesional, el recurso considera que lo dispuesto en el punto VIII del PCT incumple la legalidad en cuanto que, i) exige posesión de titulación universitaria en psicología, ii) remite como referencia para las funciones a desempeñar al perfil laboral determinado en el Convenio Sectorial de aplicación) y más concretamente a las funciones que se atribuyen al grupo 1 de la clasificación profesional y, iii) excluye la posibilidad de que sus funciones puedan ser desarrollados por un TSIS.

Para este perfil profesional, el PCT prevé las siguientes funciones:

- *“Asesorar a profesionales del Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia en relación a las actuaciones a realizar cuando ocurre o se revela abuso sexual en niños, niñas y adolescentes atendidos*
- *Asesorar a profesionales del Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia en relación a la orientación del caso y actuaciones a realizar ante las notificaciones de abuso sexual infantil*
- *Realizar acciones formativas, sistematizadas y/o puntuales cuando se*

- *Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuko profesionalentzako prestakuntza ekintza sistematizatuak eta/edo puntualak egitea, egokitzat jotzen denean.*
- *Kanpoko profesionalei aholkularitza ematea, batez ere oinarrizko gizarte zerbitzuei, ikastetxeei, osasun zentroei eta haur eta gazteentzako hezkuntza aisialdiko gune eta erakundeei, eremu horietan gertatutako edo jakinarazitako sexu abusuko egoeren aurrean egin beharreko jarduerei buruz.*
- *Kanpoko profesionalentzako prestakuntza ekintza sistematizatuak eta/edo puntualak egitea, egokitzat jotzen denean".*

Bere eginkizunak adierazi aurretik, lanbide-profil hori lotzen du aplikatu beharreko lan-hitzarmenean jasotako lanbide-sailkapeneko 1. talderako aurreikusitako eginkizunekin.

Sektore-hitzarmen honen 29. artikuluak talde horretan sartzen ditu *konplexutasun- eta autonomia-maila handienak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; normalean, Esku-hartze Sozialaren edota Administrazio eta Kudeaketaren alorreko edo horiekin lotutako goi-mailako unibertsitate-prestakuntza (lizentziatura) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatuak dituzte langileak izaten dira.*Orientazio eta erreferentzia gisa, antzinako lanbide-kategoria eta/edo lanpostu hauek barne hartzen ditu: Esku-hartze Sozialaren Arloa: Psikologia, Medikuntza, Esku-hartze Sozialeko goi-mailako titulazioa, etab.

AGISAS elkartearen ustez, profil horretarako unibertsitate-titulazioa eskatzea arbitrarioa da, eta esleitzen zaizkion eginkizunek antz handia dute apirilaren 15eko 64/2013 Dekretuan aurreikusitako errealizazio profesionalekin eta gauzatze-irizpideekin, eta, aurreratu den bezala, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren zenbait ebazpen aipatzen ditu.

Profil horri dagokionez, gure hasierako kontsiderazio orokorretara eta taldeen koordinaziorako azaldutako argudioetara jo behar dugu. Kasu honetan, are argiagoa da eginkizunak

*considere oportuno, a profesionales del Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia*

- *Asesorar a profesionales externos, especialmente a los Servicios Sociales de Base, centros escolares, centros de salud y espacios y entidades de ocio educativo infanto-juvenil, en relación a las actuaciones ante situaciones de abuso sexual ocurridas o reveladas en dichos ámbitos*
- *Realizar acciones formativas, sistematizadas y/o puntuales cuando se considere oportuno, a profesionales externos".*

Antes de señalar sus funciones, vincula este perfil profesional con las funciones previstas para el grupo 1 de la clasificación profesional prevista en el Convenio Sectorial de aplicación.

El artículo 29 de este Convenio Sectorial incluye en ese grupo al *personal encargado de tareas que requieren máximos niveles de complejidad y autonomía; normalmente con formación universitaria superior (licenciaturas) en materias propias o relacionadas con la Intervención Social o con la Administración y Gestión, o/y cualificación y experiencia contrastadas para el desempeño de las mismas.* A título orientativo y de referencia, incluye las siguientes antiguas categorías profesionales y/o puestos de trabajo: Área de Intervención Social: Psicología, Medicina, Titulación Superior en Intervención Social, etc.

La asociación AGISAS considera que la exigencia de titulación universitaria para este perfil resulta arbitraria, y que las funciones que se le atribuyen tienen una enorme semejanza con las realizaciones profesionales y los criterios de realización previstos en el Decreto 64/2013, de 15 de abril, aludiendo, tal y como ya se ha adelantado, a diversas Resoluciones del OARC.

En relación con este perfil, debemos remitirnos igualmente a nuestras consideraciones generales iniciales, y a la argumentación expuesta para la coordinación de los equipos. En este caso, resulta

gai sentikor batean aholkularitza espezializatua ematera bideratuta daudela, eta horrek justifikatzen du psikologiako unibertsitate-titulazioa bezalako prestakuntza espezializatua eskatzea. Alde batetik, prestakuntza hori beharrezkoa da PTAn bertan profil profesional horri esleitutako eginkizunei berme osoz erantzuteko. Deskribapenak eta aplikatzekoa den hitzarmen sektorialeko 1. lanbide-taldearen eginkizunen aipamena egiteak, argi eta garbi uzten dute konplexutasun- eta autonomia-maila gorena behar duten zereginei buruz ari dela. Eskakizun hori, gainera, sendoa da, eginkizun horiei erantzun diezaiekeen unibertsitate-titulu espezifiko bat identifikatzen den neurrian, eta hori koherentea da espezializazio-premia horrekin.

Aurreko argudioek ere erantzuna ematen diote AGISASek egindako eskaerari, hau da, GGT titulazioa duten pertsonek ere kontratuaren barruan profil profesional horri esleitutako eginkizunak bete ahal izateko eskaerari, eta ezetsi egiten dute.

AGISASek, profil horri dagokionez, zalantzan jarri du, halaber, PTAk lotura bat ezartzea aplikatu beharreko hitzarmen sektorialean ezarritako sailkapen profesionalarekin, uste baitu PTAn aurreikusitako eginkizunak ez direla aipatu ere egiten hitzarmen horretan.

Hitzarmen sektorialeko sailkapen profesionaleko 1. taldera igortzeari dagokionez, erreferentzia deskribatzaile osagarri gisa baino ezin da ulertu, eta horren bidez modu irekian argitzen da –hitzez hitz "normalean" esamoldea erabiltzen du– kasu honetan konplexutasun eta autonomia handieneko zereginak direla. Igorpenak, berez, ez du titulazioaren eskakizuna zehazten, ez eta justifikatzen ere, baina profil horren posizioa eta eginkizunen maila argitzen ditu, esku-hartzeaz arduratzen den diziplinarteko taldearen barruan. Ez da arbitrariotasunik ikusten, beraz, sektorearen barruan lan-baldintzak ezartzen parte hartzen duten gizarte-eragileek onartutako erreferentzia

más claro, si cabe, que las funciones están dirigidas a prestar un asesoramiento especializado en una materia sensible, lo que justifica la exigencia de formación especializada como es la titulación universitaria en psicología. Por un lado, esa formación es necesaria para atender con garantías las funciones asignadas a este perfil profesional en el propio PCT. Su descripción, unida a la remisión a las funciones que del grupo profesional 1 del Convenio Sectorial de aplicación, establecen con claridad que se refiere a tareas que requieren de máximo nivel de complejidad y autonomía. La exigencia es, además, consistente, en la medida que se identifica una titulación universitaria específica que puede dar respuesta a esas funciones, lo que resulta coherente con esa necesidad de especialización.

La anterior argumentación da también cumplida respuesta, rechazándola, a la petición de AGISAS para que también las personas que ostenten la titulación de TSIS puedan desempeñar las funciones asignadas a este perfil profesional dentro del contrato.

AGISAS también cuestiona en relación con este perfil, que el PCT establezca una vinculación con la clasificación profesional establecida en el Convenio Sectorial de aplicación, puesto que considera que las funciones previstas en el PCT ni siquiera se citan en ese Convenio.

En cuanto a la remisión al grupo 1 de la clasificación profesional del Convenio Sectorial, sólo puede entenderse como una referencia descriptiva complementaria, a través de la cual se aclara de un modo abierto –literalmente utiliza la expresión “*normalmente*”- que, en este caso, se trata de tareas de la mayor complejidad y autonomía. La remisión, por sí sola, no determina ni justifica la exigencia de titulación, pero sí clarifica la posición y el nivel de las funciones de este perfil dentro del equipo interdisciplinar encargado de la intervención. No se aprecia arbitrariedad alguna, por tanto, por utilizar una referencia descriptiva admitida por los agentes

deskribatzaile bat erabiltzeagatik. Hori da, halaber, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren interpretazioa (uztailaren 1eko 112/2022 Ebazpena) antzeko kasu baten aurrean.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, ezetsi egin behar dugu errekurtsoa, PTAren VIII. puntuan psikologo – haurren sexu abusuko aholkularitza teknikari gisa aurreikusitako profila betetzeko, 1. sortan, psikologiako unibertsitate-titulua eskatzeari dagokionez.

**4) Psikologo terapeuta (1. sorta).**

PTAren VIII. puntuak honela deskribatzen du lanbide-profil hori: *«sektoreko hitzarmen kolektiboan zehaztutako lan profilari lotutako profil profesionala da. Hitzarmen kolektibo horrek zehazten du profila, prestazioa bermatzeko beharrezkoak diren eginkizunen arabera, eta bat datoz aipatutako hitzarmen kolektibo sektorialeko 1. taldekoekin. Psikologiako titulua izan beharko dute; prestakuntza espezifikoa izango dute familia terapian edo haurren eta nerabeen babesean, eta esperientzia egiaztatua arlo horietakoren batean.»*

Lanbide-profil horri dagokionez, AGISAS elkarteak ere zalantzan jartzen du PTAn sektoreko hitzarmeneko 1. lanbide-taldera igortzea.

Hauek dira PTAn profil horretarako aurreikusitako eginkizunak:

*«Sorta honetan, esku hartzearen arduradunak izango dira, eta honako eginkizun eta zeregin hauek izango dituzte:*

- *Kasuaren arduradunarekin lankidetzan aritzea, Kasuaren Planean aktibatutako gainerako baliabideekin erabat koordinatua eta haiekin koherente izanda.*
- *Esku Hartze Plana prestatzea honako hauek jasoz: helburu operatiboak, egingo diren jarduerak, ezarriko diren baliabideak eta gauzatzeko epeak.*
- *Esku Hartze Planaren garapenaren eta*

sociales que participan en el establecimiento de las condiciones de trabajo dentro del sector. Esta es, también, la interpretación del OARC (Resolución 112/2022, de 1 de julio) ante un supuesto similar.

En atención a todo lo expuesto, debemos desestimar el recurso en cuanto a la exigencia de titulación universitaria en psicología, para el desempeño del perfil previsto en el punto VIII del PCT como Psicólogo/a – Técnico/a de asesoramiento de abuso sexual infantil, para el Lote 1.

**4) Psicólogo/a-Terapeuta (Lote 1).**

El punto VIII del PCT describe este perfil profesional como *"vinculado con el perfil laboral determinado en el Convenio Colectivo sectorial, que define el perfil de acuerdo con las funciones necesarias para garantizar la prestación y que se corresponden con las del Grupo 1 del citado convenio colectivo sectorial. Deberán estar en posesión del título de psicología, y contarán con formación específica en terapia de familia y/o protección infantil y adolescente, así como experiencia acreditada en alguno de estos campos."*

En relación con este perfil profesional, la asociación AGISAS también cuestiona la remisión en el PCT al grupo profesional 1 del Convenio Sectorial.

Las funciones previstas en el PCT para este perfil son las siguientes:

"*Serán en este lote las figuras responsables de la intervención y sus funciones y tareas serán las siguientes:*

- *Colaborar con la persona responsable de caso, en perfecta coordinación y coherencia con el resto de los recursos activados en el Plan de Caso.*
- *Elaborar el Plan de intervención, en el que se recogerán los objetivos operativos, las actuaciones a realizar, los recursos a aplicar y los plazos de ejecución.*
- *Evaluar el desarrollo y grado de*

*betetze mailaren ebaluazioa egitea, familia bakoitzari dagozkion ebaluazio txostenak prestatuz, zehaztuta dagoen maiztasunarekin.*

- *Familiako kideekin zuzeneko esku hartze terapeutikoak egitea, kasuaren beharrak kontuan izanda. Esku hartze horiek indibidualak, familiakoak edo taldekoak izan daitezke, eta kontsultan bertan nahiz handik kanpo egin ahal izango dira.*
- *Esku Hartze Planaren orientazio teknikoa familia-langilearekin partekatzea, eta elkarri laguntzea, bi esku hartze moten garapen osagarria eta koherentea bermatzeko.*
- *Behar izanez gero, beste profesional batzuei aholku ematea.*
- *Sareko bileretan edo profesionalen arteko bileretan parte hartzea, behar denean edo hala eskatzen zaienean.*
- *Tratamendu prozesuan familiek modu aktiboan parte har dezaten bermatzea, ematen ari zaien laguntzagatik duten gogobetetze maila ezagutuz.*
- *Fiskaltzak edo epaitegiak eskatuz gero, laguntza ematen zaien familiei dagozkien prozedura judizialetan lekukotza eman beharko du.»*

*cumplimiento del Plan de Intervención, elaborando los informes de evaluación correspondientes a cada familia y con la frecuencia señalada.*

- *Realizar intervenciones terapéuticas directas con los miembros de la familia, en función de las necesidades del caso. Estas intervenciones podrán ser individuales, familiares o grupales, y podrán desarrollarse tanto en la consulta como fuera de ella.*
- *Compartir la orientación técnica del Plan de Intervención con el/la Trabajador/a Familiar, en mutuo apoyo, para garantizar el desarrollo complementario y coherente de ambas modalidades de intervención*
- *Asesoramiento si procede a otros profesionales.*
- *Participar en las reuniones de red o en aquellas reuniones interprofesionales en las que sea precisa su presencia.*
- *Garantizar la participación activa de la familia en el proceso de tratamiento, conociendo el grado de satisfacción de la familia por la ayuda que se le está prestando.*
- *Si así fuera requerido por la Fiscalía o el Juzgado, deberá testificar en procedimientos judiciales derivados de las familias atendidas."*

Kasu honetan eskatzen den psikologiako unibertsitate-titulua ez da aurreko kasuan bezain eztabaidagarria; izan ere, haren eginkizunen artean sartzen da familiako kideekin esku-hartze terapeutiko zuzenak egitea. Jarduera hori, behar bezalako bermeekin garatzeko, prestakuntza espezializatua duten pertsonek gauzatu behar dute.

El título universitario de psicología exigido en este caso es menos cuestionable, si cabe, que en el caso anterior ya que, entre sus funciones, se incluye la de realizar intervenciones terapéuticas directas con los miembros de la familia; actuación que, para ser desarrollada con las debidas garantías, debe ejecutarse por personas que cuenten con formación especializada.

Sektoreko hitzarmeneko 1. lanbide-taldea aipatzeari dagokionez, aurreko lanbide-profilean adierazitakoa errepikatu behar dugu. Igorpen horrek ez du beharrezko titulazioa zehazten, baina erreferentzia osagarri bat eskaintzen du –betiere kontratuaren bidez bete beharreko premiekin

En cuanto a la referencia al grupo profesional 1 del Convenio Sectorial, debemos reiterar lo expuesto en el perfil profesional anterior. Esa remisión no determina la titulación necesaria, pero ofrece una referencia complementaria -siempre que resulte coherente con las necesidades que

koherentea bada–, eta horren bidez argitzen da bere eginkizunen artean konplexutasun eta autonomia handieneko zereginak sartzen direla. Beraz, hortik ez da inolako arbitrariotasunik ateratzen.

Beraz, ezetsi egin behar dugu AGISASen errekurtsoa, 1. sortarako aurreikusitako psikologo-terapeutaren lanbide-profilarekin lotutako guztiari dagokionez, hau da, psikologiaren arloan goi-mailako titulazioa eskatzea, profil horretarako GGT titulazioa duten pertsonak onartzea eta Hitzarmen Sektorialeko 3. taldea onartzea profil horretan sartzeko.

**5) Psikologoa (2. sorta).**

Kasu horretarako, PTAk honako hau ezartzen du: *"sektoreko hitzarmen kolektiboan zehaztutako profilari lotutako profil profesionala izango dute. Hitzarmen kolektibo horrek zehazten du profila, prestazioa bermatzeko beharrezkoak diren eginkizunen arabera, eta bat datoz aipatutako hitzarmen kolektibo sektorialeko 1. taldekoekin. Psikologiako titulua izan beharko dute; prestakuntza espezifikoa izango dute familia terapian edo haurren eta nerabeen babesean, eta esperientzia egiaztatua arlo horietakoren batean.»*

Ez da beharrezkoa PTAn aurreikusitako funtzio guztiak errepikatzea elkarte errekurtsogilearen argudioak baztertzeko. Nahikoa da adieraztea funtzio horien artean sartzen dela arreta psikologikoa, psikosoziala edo terapeutikoa ematea, banaka, familian eta taldean; baloratzea, diagnostikatzea, kasuen pronostikoa egitea, eta esku-hartzearen orientazioak eta hipotesiak ematea. Bere zereginen artean, esku-hartzearen pertsona erreferentea izateaz gain, honako hauek sartzen dira: izaera psikosozialeko eta terapeutikoko zuzeneko jarduerak egitea familiako kideekin, harremanetarako laguntza psikologikoa ematea, aholkularitza ematea beste profesional batzuei, hala badagokio, edo psikopatologia posibleak detektatzea, eta artatutako familietatik eratorritako prozedura judizialetan lekukotza ematea.

deban cubrirse mediante el contrato-, a través de la cual se aclara que entre sus funciones se incluyen tareas de la mayor complejidad y autonomía. De ello no se extrae, por tanto, arbitrariedad alguna.

Debemos desestimar, por tanto, el recurso de AGISAS, en todo lo relacionado con el perfil profesional de Psicólogo/a – Terapeuta contemplado para el Lote 1, esto es, exigencia de titulación superior en el área de psicología, la admisión para este perfil de las personas que dispongan de la titulación de TSIS y el reconocimiento del grupo 3 del Convenio Sectorial para acceder a este perfil.

**5) Psicólogo/a (Lote 2).**

Para este caso, el PCT establece que "*tendrán un perfil profesional vinculado con el perfil laboral determinado en el Convenio Colectivo sectorial, que define el perfil de acuerdo con las funciones necesarias para garantizar la prestación y que se corresponden con las del Grupo profesional 1 del citado convenio colectivo sectorial. Deberán estar en posesión del título de psicología, y contarán con formación específica en terapia de familia y/o protección infantil y adolescente, así como experiencia acreditada en alguno de estos campos".*

No es preciso reproducir todas las funciones previstas en el PCT para rechazar los argumentos de la asociación recurrente. Basta con señalar que entre esas funciones se incluyen la de atender psicológica, psicosocial o terapéuticamente de forma individual, familiar y grupal; valorar, diagnosticar, realizar pronóstico de casos, orientaciones e hipótesis de intervención. Entre sus tareas, además de ser la persona referente de la intervención, incluye la realización de actuaciones directas de carácter psicosocial y terapéutico con los miembros de la familia, ejercer funciones de apoyo psicológico relacional, el asesoramiento si procede a otros profesionales o la detección de posibles psicopatologías, además de testificar en procedimientos judiciales derivados de las familias atendidas.

La exigencia de la titulación universitaria en

Psikologiako unibertsitate-titulazioaren eskakizuna ezin da zalantzan jarri, eta, lehen azaldutako arrazoi berberengatik, ezin da aintzat hartu aplikatzekoa den sektoreko hitzarmenaren lanbide-talderako igorpena deuseztatzeko eskaera. Igorpen argigarri bat da, eta, nolanahi ere, hitzarmen sektorialeko 1. talde profesionalean sartzea kasu jakin honetan aplikatzearen emaitza da.

Oraingoan ere, Auzitegiak ezetsi egin behar ditu AGISASen eskaera guztiak, PTAren VIII. puntuan psikologo gisa aurreikusitako profila betetzeko, 2. sortan, psikologiako unibertsitate-titulua eskatzeari dagokionez.

psicología no puede ser cuestionada y, por los mismos motivos anteriormente expuestos, tampoco cabe atender la petición de anulación de la remisión al grupo profesional del Convenio Sectorial de aplicación. Se trata de una remisión aclaratoria y, en todo caso, la inclusión en el grupo profesional 1 del Convenio Sectorial es resultado de su aplicación al supuesto concreto.

El Tribunal debe, también en este caso, desestimar todas las peticiones de AGISAS en relación con la exigencia de titulación superior en el área de psicología, para el desempeño del perfil previsto en el punto VIII del PCT como Psicólogo/a, para el Lote 2.

**6) Gizarte hezitzailea (1. eta 2. sortak).**

Bi profil horien kasuan, PTAren VIII. puntuak honako hau ezartzen du: *“sektoreko hitzarmen kolektiboan zehaztutako lan profilari lotutako profil profesionala izango dute. Hitzarmen kolektibo horrek zehazten du profila, prestazioa bermatzeko beharrezkoak diren eginkizunen arabera, eta eginkizun horiek bat datoz aipatutako hitzarmen kolektibo sektorialeko 2. taldekoekin. Gizarte Hezkuntzako diplomatura/gradua izango dute, edo profesionalen elkargo batek gaituta egongo dira. Gizarte hezkuntzaren kode deontologikoa aplikatuko dute, hau da, lanbide ekintza eta jokabidea bideratzen duten printzipio eta arauen multzoa, beren lanbidean jarduten lagunduz eta komunitateari eta gizabanakoei eskaintzen zaien lanaren kalitatea hobetuz”.*

Hona hemen 1. sortan (Bideratu) lanbide-profil horretarako ezarritako zereginak:

- *Hezkuntzako, laneko, aisialdiko eta gizarte partaidetzako aukera eta perspektiba berriak transmititzea, garatzea eta sustatzea.*
- *Sare sozialak, testuinguruak, prozesuak eta hezkuntza eta gizarte baliabideak sortzea, soziabilitatearen eta gizarte zirkulazioaren garapen gisa ulertuta.*

**6) Educador/a social (Lotes 1 y 2).**

En el caso de estos dos perfiles, el punto VIII del PCT establece que “*tendrán un perfil profesional vinculado con el perfil laboral determinado en el Convenio Colectivo sectorial, que define el perfil de acuerdo con las funciones necesarias para garantizar la prestación y que se corresponden con las del Grupo 2 del citado convenio colectivo sectorial. Contarán con una diplomatura/grado en Educación Social, o estarán habilitados por Colegio Profesional. Aplicarán el código deontológico de la educación social, entendido como el conjunto de principios y normas que orientan la acción y la conducta profesional, ayudándoles en el ejercicio de su profesión y mejorando la calidad del trabajo que se ofrece a la comunidad y a los individuos”.*

Las funciones establecidas para este perfil profesional en el lote 1 (Bideratu) son las siguientes.

- *Transmitir, desarrollar y promover nuevas posibilidades y perspectivas educativas, laborales, de ocio y participación social.*
- *Generar redes sociales, contextos, procesos y recursos educativos y sociales, entendido como el desarrollo de la sociabilidad y la circulación social.*
- *Conocer, analizar e Investigar el territorio*

- *Lurraldea eta gizarte, hezkuntza eta komunitate testuinguruak ezagutzea, aztertzea eta ikertzea.*
- *Beste erakunde eta hezkuntza baliabide batzuekiko harremanak koordinatzea eta antolatzea.*
- *Gizarte, kultura eta hezkuntza arloko bitartekotza egitea, heziketaren subjektuak baliabide eta prozesu aberasgarriak eskainiko dizkioten lekuak, pertsonak eta edukiak aurki ditzan.*

2. sortari (Trebatu) dagokionez, aurreko zereginei beste bi gehitu behar zaizkie:

- *Banakako, familiako eta/edo taldeko gizarte eta hezkuntza arloko esku hartze espezializatuak garatzea haur eta nerabeen familiekin, haurrak babesteko sistemaren jarduera esparruaren barruan.*
- *(...)*
- *Hezkuntza programak, proiektuak eta prozesuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea.*

Zeregin horiei eginkizun zehatzagoak esleitzen zaizkie sorta bakoitzerako.

Profil horiei dagokienez, errekurtsoari buruzko txostenak argudiatzen du Gizarte Hezkuntzako diplomatura/gradua edo Elkargo Profesional bidezko gaikuntza eskatzea espezializazio-planteamendu beraren ondorio dela, bai gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen funtzioei dagokienez, bai psikologoekin izan beharreko koordinazio lanei dagokienez. Aurrekoari gehitzen dio gizarte-hezitzaileak *"konplexutasun handiko zereginak betetzen dituela, eta gaitasun tekniko eta pertsonal horiek unibertsitate-curriculumak soilik errazten dituela"*.

Alde batetik, 131/2008 Dekretua aipatzen du, uztailaren 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-baliabideak arautzen dituena. Dekretu horren V. tituluak baliabideen funtzionamendu egokirako beharrezkotzat jotzen diren teknikarien gutxieneko baldintzak arautzen ditu. Horrela, gizarte-hezitzailearen eta

*y los contextos sociales, educativos y comunitarios*

- *Coordinarse y organizar las relaciones con otras instituciones y recursos educativos*
- *Mediar social, cultural y educativamente para que el sujeto de la educación pueda encontrarse con lugares, personas y contenidos que le ofrezcan recursos y procesos enriquecedores.*

En cuanto al lote 2 (Trebatu), a las anteriores funciones se le suman otras dos:

- *Desarrollar intervenciones socioeducativas especializadas individuales, familiares y/o grupales con familias niños/as y adolescentes, especializadas y dentro del marco de actuación del sistema de protección infantil*
- *(...)*
- *Diseñar, implementar y evaluar programas, proyectos y procesos educativos*

A estas funciones se asignan una serie de tareas más específicas para cada uno de los lotes.

En relación con estos perfiles, el informe acerca del recurso aduce que la exigencia de diplomatura/grado en Educación Social, o habilitación por Colegio Profesional obedece al mismo planteamiento de especialización, tanto en las funciones de intervención socioeducativa como en las labores de coordinación que debe mantener con psicólogas y psicólogos. A lo anterior añade que el educador social desempeña funciones de *"alto nivel de complejidad, competencias técnicas y personales que exclusivamente las facilita el currículo universitario"*.

Cita, por un lado, el Decreto 131/2008, de 8 de julio, regulador de los recursos residenciales para la infancia y la adolescencia en situación de desprotección social cuyo Título V regula los requisitos mínimos de personal técnico considerados necesarios para el buen funcionamiento de los diferentes recursos. Con

gizarteratzailearen arteko aldea justifikatzen du, azken hori lehenengoaren laguntzailetzat jotzen baitu. Dekretu horrek, gaineratzen duenez, *"argi uzten du tratu txarrak jasan dituzten adingabeekin esku hartu behar denean, gizarte-hezitzaileei dagokiela esku hartzea, eta gizarteratzailea figura osagarri gisa geratzen dela"*. Bestalde, adibide gisa aipatzen du 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena, zeinean gizarte-hezitzaileei parte-hartze nabarmena ematen baitzaie.

ello justifica la diferencia entre la figura del educador o educadora social y la del integrador o integradora, que considera auxiliar del anterior. Este Decreto, añade, *"deja claro que cuando se debe realizar una intervención con personas menores de edad que han sufrido situaciones del maltrato, corresponde a los educadores sociales su realización, quedando el integrador como figura complementaria"*. Por otro lado, cita también a modo ilustrativo el Decreto 230/2011, de 8 de noviembre, por el que se aprueba el instrumento de valoración de la gravedad de las situaciones de riesgo en los servicios sociales municipales y territoriales de atención a la infancia y adolescencia en la Comunidad Autónoma Vasca (Balora), en el que se otorga una participación destacada a los educadores y educadoras sociales.

Auzitegi honen ustez, gizarte-hezkuntzan prestakuntza duten pertsonei egindako dei bat ez da nahitaez ulertu behar eremu horretan dauden unibertsitate-tituluei lotutakoa dela. Duela gutxiko adibide gisa, urtarrilaren 26an eman genuen 5/2023 Ebazpena aipa dezakegu. Ebazpen horretan, "gizarte-hezitzaileei" buruzko erreferentziaren interpretazio zabala onartu zen, eta, horri esker, bertan sartu ahal izan ziren GGT titulua zuten pertsonak.

Este Tribunal entiende que una llamada a personas con formación en educación social, no tiene que entenderse necesariamente referida a las titulaciones universitarias que existen en ese campo. Como ejemplo reciente, podemos citar nuestra Resolución 5/2023, de 26 de enero, en la que se admitió una interpretación amplia de la referencia a los "educadores sociales" que permitió incluir en ella a las personas que ostentaban el título de TSIS.

PTAk berak hainbat aukera ematen ditu profil profesional horietarako egungo gradua eta aurreko diplomatura onartzean, eta Elkargo Profesionalak gaitutakoak ere sartzen ditu, jakinda azken gaikuntza horrek aintzatespena dakarkiela unibertsitate-titulu ofizialak izan aurretik arlo horretan aritu zirenei. Horrela, lanbide-kualifikazioen esparruan eztabaidaezina den egitate bat baino ez da gauzatzen, hau da,: kualifikazio bat hainbat prestakuntza-bideren bidez (hezkuntza nahiz lana) eskuratzeko aukera.

El propio PCT incluye varias posibilidades al admitir para estos perfiles profesionales tanto el grado actual como la anterior diplomatura, e incorpora asimismo a los habilitados por Colegio Profesional, conociendo que esta última habilitación supone un reconocimiento a las personas que se dedicaron a este campo antes de que existiera títulos universitarios oficiales. Con ello, sólo se materializa un hecho incontestable en el marco de las cualificaciones profesionales como es la posibilidad de adquirir una cualificación por diferentes vías formativas, tanto educativas como laborales.

GGT tituluaren curriculuma erregulatzen duen araudiak ere (uztailaren 13ko 1074/2012 Errege Dekretua eta apirilaren 15eko 63/2014 Dekretua)

La normativa que regula el currículo del título de TSIS (Real Decreto 1074/2012, de 13 de julio y Decreto 63/2014, de 15 de abril) también contiene

hainbat erreferentzia jasotzen ditu, eta horiei esker, tituludun horiek sar daitezke gizarte-hezitzaile kontzeptuaren barruan, zentzu zabalean. Tituludunen lanbide eta lanpostu garrantzitsuenen artean, hezitzaile-lanpostua aipatzen da testuinguru desberdinetan (teknikari hezitzailea, oinarrizko hezitzailea, egoitza-ekipamenduetakoa, desgaitasuna duten pertsonena eta familia-heziketakoa), eta irakaskuntzari dagokionez GGTren titulazio baliokideak ere ezartzen dira, horien artean gizarte-hezkuntzako diplomatura.

varias referencias que permiten incluir a estos titulados dentro de lo que, en un sentido amplio, puede ser integrado dentro del concepto de educadora o educador social. Entre las ocupaciones y puestos más relevantes de las personas tituladas se hace referencia al puesto de educador en diferentes contextos (técnico educador o técnica educadora, educador o educadora de base, de equipamientos residenciales, de personas con discapacidad y de educación familiar) e incluso se establecen también titulaciones equivalentes a la de TSIS a efectos de docencia, entre las que incluye la diplomatura en educación social.

PTAn profil profesional horiei esleitutako zereginen artean, zaila da zehaztea zein diren GGT titulazioa duten pertsonek bete ezingo lituzketenak. Egia da, 2. sortari dagokion profilean, bi zeregin sartzen direla (gizarte eta hezkuntza arloko esku hartze espezializatuak garatzea eta hezkuntza programak, proiektuak eta prozesuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea), erabateko autonomiarekin garatu beharreko jardun konplexua eska dezaketenak; baina egia da, era berean, autonomia hori erlatiboa dela, hezitzaileen jardunak talde baten esparruan eta koordinaziopean egiten diren heinean. Hain zuzen ere, koordinazioaren arduradun horrek bere gain hartzen ditu, besteak beste, taldearen zuzendaritza teknikoa, jardueren plangintza eta ebaluazioa, eta jardueren plangintza eta ebaluazioa egiteko irizpide teknikoen definizioa. Koordinazio zeregin horiek berekin dakarte "nolabaiteko zuzendaritza-boterea, koordinatzen duenak koordinatuarekiko duen nagusitasun-posizioaren ondorioz" (214/1989 KAE, abenduaren 21ekoa). Testuinguru horretan, ez da arrazoizkoa, esku-hartze psikosozialeko eta gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze zerbitzu bat emateko diseinatutako diziplina anitzeko talde bateko kideen artean, PTAk inolako espaziorik ez aurreikustea berariazko eta goi-mailako prestakuntza duten pertsonentzat –nahiz eta unibertsitatekoa ez izan–, hala nola GGT tituluak ematen duena.

Entre las funciones asignadas en el PCT a estos perfiles profesionales, resulta complicado determinar cuáles son las que no podrían ser desarrolladas por las personas que disponen de la titulación de TSIS. Es cierto que, en el perfil correspondiente al lote 2, se incluyen dos funciones (desarrollar intervenciones socioeducativas especializadas y diseñar, implementar y evaluar programas, proyectos y procesos educativos) que pueden requerir una actuación compleja, a desarrollar con plena autonomía, pero es también cierto que esa autonomía es relativa, en la medida en que las actuaciones de las personas educadoras se realizan en el marco de un equipo, y bajo una coordinación que asume, entre otras funciones, la dirección técnica del equipo, la planificación y evaluación de las actuaciones, y la definición de los criterios técnicos para la realización de la planificación y evaluación de las actuaciones. Estas funciones de coordinación, conllevan "un cierto poder de dirección consecuencia de la posición de superioridad en que se encuentra el que coordina respecto al coordinado" (STC 214/1989, de 21 de diciembre). En este contexto, lo que no resulta razonable es que, entre los miembros de un equipo multidisciplinar diseñado para prestar un servicio de intervención psicosocial y socioeducativa, el PCT no contemple espacio alguno para las personas que ostentan una formación específica y superior –aunque no universitaria- como la que proporciona el título de TSIS.

Azpimarratu behar dugu "askatasuna eta egokitasunaren" printzipioa kontuan hartu behar

Debemos insistir en la necesidad de tener en cuenta el principio de "libertad con idoneidad",

dela. Printzipio horretatik ondorioztatzen denez, kontratu administratibo baten esparruan titulazio espezifiko bat eskatu ahal izateko, haren xedearekin lotuta egon daitezkeen beste prestakuntza-aukera batzuk baztertuta, ez da nahikoa aukera hori posible edo arrazoizkoa izatea. Legezko erreserba bat egon behar da edo, kasu honetan bezala, horrelako erreserbarik ez badago, titulazio espezifiko horrek erabakigarria izan behar du kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko; egoera hori kontratazio-espedientetik atera behar da.

Errekurtsoari buruz Departamentuak egindako txostenari, argigarri modura, gehitzen zaizkion erreferentziei dagokienez, Auzitegiak uste du ezin dutela justifikatu GGT titulua duten pertsonak hezitzaileen profil profesionaletatik kanpo uztea. 230/2011 Dekretuak ez du hezitzaile terminoaren interpretazio zabala baztertzen, eta 131/2008 Dekretuari dagokionez, nahiz eta kasu honetan zeregin desberdinak ezartzen diren prestakuntza-mailaren arabera, arauak jarduera eremu bat gordetzen du GGT titulua duten pertsonentzat, eta hori ez da gertatzen hizpide dugun kontratuan.

Lanbide-profil horrek aplikatzekoa den sektore-hitzarmenean 2. lanbide-taldeari esleitutako eginkizunekin duen loturari dagokionez, azpimarratu behar dugu orientazio-erreferentzia bat dela, eta ez dituela nahitaez baztertzen GGT titulua duten pertsonak. Hitzarmenak berak adierazten du "normalean" unibertsitate-titulua izango dutela, eta zenbait titulazio jasotzen ditu *"orientazio eta erreferentzia gisa"*, eta, beraz, ez da nahitaez ulertu behar elkarte errekurtsogileak ordezkatzen dituen tituludunak kanpoan uzten direnik.

Beraz, errekurtsoa baietsi behar dugu, hezitzailearen lanbide-profilaren zereginak betetzeko Gizarte Hezkuntzako diplomatura/gradu bat edo Elkargo Profesional bidezko gaikuntza eskatzeari dagokionez, profil horretatik kanpo utzita GGT titulua duten pertsonak. Azaldutako

del que se desprende que, para poder exigir una titulación específica en el marco de un contrato administrativo, excluyendo otras opciones formativas que también pueden estar relacionadas con su objeto, no basta con que esa opción resulte posible o razonable. Debe existir una reserva legal o si, como es el caso, no existe tal reserva, esa titulación específica debe ser determinante para la correcta ejecución del objeto contractual; situación que ha de extraerse del expediente de contratación.

En cuanto a las referencias que, de modo ilustrativo, se incorporan al informe del Departamento acerca del recurso, este Tribunal considera que tampoco pueden justificar la exclusión de las personas que ostentan el título de TSIS de los perfiles profesionales de educadores o educadoras. El Decreto 230/2011 no excluye una interpretación amplia del término educador y educadora y, por lo que se refiere al Decreto 131/2008, aunque en este caso sí se establecen diferentes funciones en función del nivel de formación, la norma reserva un espacio de actuación para las personas que ostentan la titulación de TSIS; situación que no se produce en el contrato que nos ocupa.

Sobre la vinculación de este perfil profesional con las funciones atribuidas al grupo profesional 2 en el Convenio Sectorial de aplicación, debemos insistir en que se trata de una referencia orientativa que no excluye necesariamente a las personas que ostentan el título de TSIS. El propio Convenio señala que *"normalmente"* dispondrán de titulación universitaria, e incluye varias titulaciones *"a título orientativo y de referencia"*, por lo que no debe entenderse necesariamente que se excluye a los titulados a los que representa la asociación recurrente.

Por tanto, debemos estimar el recurso en cuanto a la exigencia para desempeñar las funciones del perfil profesional de educador o educadora de una diplomatura/grado en Educación Social, o habilitación por Colegio Profesional, excluyendo de ese perfil a las personas que ostentan el título

arrazoiengatik, ezin da errekurtsoa aintzat hartu hezitzailearen profila aplikatzekoa den hitzarmen sektorialean zehaztutako 2. taldeko lan-profilarekin lotzeari dagokionez.

de TSIS. No cabe, por los motivos expuestos, atender el recurso en cuanto a la vinculación del perfil de educador o educadora con el perfil laboral del Grupo 2 determinado en el Convenio Sectorial de aplicación.

**C) Beste kontu batzuk.**

**C) Otras cuestiones.**

**HAMABIGARRENA.- Administrariak.**

Errekurtsoak bi gai kontrajarri eskatzen ditu langile horiei dagokienez. Alde batetik, PTAren VIII. puntuan administrariei esleitzen zaizkien zereginetarako GGT titulua duten pertsonak onartzeko eskatzen du, baina, bestetik, zeregin horiek administrariei esleitzea baliogabetzeko eskatzen du.

Kasu honetan, errekurtsoak ez du funtsik. PTAk ez du inolako errekerimendurik ezartzen langile horientzat. Administrazio-izaerako eginkizun batzuk baino ez ditu ezartzen, zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak bere langileekin egin beharko dituenak.

Beraz, errekurtsoa ezetsi egin behar da administrariei dagokienez.

**DUODÉCIMO.- Personal Administrativo.**

El recurso solicita dos cuestiones contradictorias en relación con este personal. Por un lado, reclama el reconocimiento de las personas que ostenten el título de TSIS para desarrollar las funciones que el punto VIII del PCT asigna al personal administrativo, pero, por otro lado, solicita la anulación de la asignación de esas funciones al personal administrativo.

En este caso, el recurso carece de fundamento. El PCT no establece requerimiento alguno para este personal. Únicamente establece una serie de funciones de naturaleza administrativa que la empresa adjudicataria del servicio deberá realizar con su personal.

Por tanto, debe desestimarse el recurso en lo que concierne al personal administrativo.

**HAMAHIRUGARRENA.- Oporren estaldura eta ordu-banaketa.**

Gai horri buruzko eskaera ere ezin da aintzat hartu. Hain zuzen ere, eskaera hori PTAren interpretazio oker batetik baino ezin da ulertu; izan ere, bistakoa da *"oporrak bete behar izan gabe"* esamoldeak aukera ematen diela enpresei kontratuari esleitutako langileen oporrak betetzeko behar diren orduak kontuan ez hartzeko. Beraz, ez du zerikusirik *"lizitatzaileen parte-hartzea eragozten eta diskriminatzen duen balizko debeku batekin."*

Ordu-banaketari dagokionez, AGISASen ustez, *"baztertu egiten ditu eta diskriminatzailea da GGT titulua duten pertsonentzat, beste profesional batzuekiko tratu-berdintasunaren printzipioa urratzen duelako"*, baina ez du baieztapen hori

**DECIMOTERCERO.- Cobertura de las vacaciones y distribución horaria.**

Tampoco cabe atender la petición sobre esta cuestión. De hecho, esa petición sólo puede comprenderse partiendo de una errónea interpretación del PCT, puesto que resulta evidente que la expresión *"sin que se deban cubrir las vacaciones"* permite a las empresas no tener en cuenta las horas necesarias para cubrir las vacaciones del personal asignado al contrato. Nada tiene que ver, por tanto, con una posible *"prohibición que imposibilite y discrimine la participación de las licitadoras."*

En cuanto a la distribución horaria, AGISAS entiende que *"excluye y es discriminatoria para las personas que ostentan el título de TSIS debido a que vulnera el principio de igualdad de trato en relación con otros profesionales"*, pero no ofrece

oinarritzeko argudiorik ematen, eta, beraz, errekurtsoa ere baztertu egin behar da eskaera horri dagokionez.

argumento alguno en el que sustentar esa afirmación, por lo que el recurso debe ser igualmente rechazado en cuanto a esta petición.

**HAMALAUGARRENA.- Emakumearen aldeko diskriminazioa.**

**DECIMOCUARTO.- Discriminación en favor de la mujer.**

Errekurtsoaren petituma, zehazki, kontratatzeko beharra justifikatzen duen txostenean xedatutakoari buruzkoa da. Hala ere, txosten hori ez da kontratu-dokumentu bat, eta, errekurtsoa aurkeztu duen elkarteak hala baieztatzen duen arren, haren edukia ere ez da sartu kontratuaren baldintza-agirietan, kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa (AKPAren 38.2.5 klausula).

El petitum del recurso se refiere concretamente a lo dispuesto en el informe justificativo de la necesidad de la contratación. Sin embargo, este informe no es un documento contractual, y, aunque así lo afirme la asociación recurrente, su contenido tampoco ha sido incluido en los pliegos del contrato, como una condición especial de ejecución (cláusula 38.2.5 del PCAP).

Beraz, ez dugu errekurtsoa onartu behar, zerbitzua justifikatzeko txostena edo memoria baliogabetzeko eskaerari dagokionez; izan ere, ez dago SPKLren 44.2 artikuluan jasotako kontratazio-arloko errekurtso bereziaren xede izan daitezkeen jarduketen artean.

Debemos inadmitir, por tanto, el recurso, en cuanto a la petición de anular el informe o memoria justificativa del servicio, ya que no se encuentra entre las actuaciones que pueden ser objeto de recurso especial en materia de contratación que se contemplan en el artículo 44.2 de la LCSP

Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileei isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a las recurrentes una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

Ondorioz, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**E R A B A K I T Z E N  D U**

**A C U E R D A**

**Lehenengo.-** Baiestea GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILEEN ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAK kontratazio arloan jarritako errekurtso berezia, honako gai hauei dagokienez:

- preskripzio teknikoen agirian, 1. eta 2. sortetako "Zerbitzuaren zuzendaritza" lanbide-profilerako eskatzen da goi mailako unibertsitate-titulazioa enpresen administrazio eta zuzendaritzaren arloan, edo graduondokoa gizarte-baliabideen,

**Primero.-** Estimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES, en cuanto a:

- la exigencia en el Pliego de Condiciones Técnicas, para el perfil profesional "Dirección del Servicio" de los lotes 1 y 2, de titulación universitaria superior en el área de las administración y dirección de empresas, o postgrado en la gestión de

gizarte-zientzien, hezkuntzakoen edo psikologikoen kudeaketan, eta baliogabetu egiten dugu.

- preskirpzio teknikoen agirian, 1 eta 2 sortetako "Gizarte-hezitzailea" lanbide-profilerako eskatzen da Gizarte Hezkuntzako diplomatura/gradua edo Elkargo Profesional bidezko gaikuntza, eta baliogabetu egiten dugu.

**Bigarren.-** Errekurtsoa ezestea gainerako guztiari dagokionez.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

**Donostia, 2023ko uztailaren 5a.**

recursos sociales, ciencias sociales, educativas o psicológicas, que anulamos.

- la exigencia en el Pliego de Condiciones Técnicas, para el perfil profesional “Educador o educadora social” de los lotes 1 y 2, de diplomatura/grado en Educación Social, o habilitación por Colegio Profesional, que anulamos.

**Segundo.-** Desestimar el recurso en todo lo demás.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**San Sebastián, 5 de julio de 2023.**